# URNIETAKO ZAINTZA EKOSISTEMA 2024

## ZAINTZEN ERREALITATEAREN GAINEKO DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

URNIETAKO UDALA

Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
2024ko uztaila

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Zabalduz
matia

# 0. AURKIBIDEA

1. SARRERA ... 3
2. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN OINARRI TEORIKOAK ... 4
2.3. Dikotomiekin hautsiz ... 6
2.4. Erantzunkidetasuna eta ardura soziala: Elkarlan publiko-komunitarioaren erronka ... 6
3. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN HELBURUAK ETA LAN METODOLOGIA ... 8
3.1. Diagnostikoaren helburuak ... 8
3.2. Parte hartzaileak eta lan metodologia ... 8
3.2.1. Talde motorra ... 8
3.2.2. Parte hartzaileen profila ... 9
3.3. Informazioa biltzeko tresnak ... 10
3.3.1. Galdetegi itxia ... 11
3.3.2. Elkarrizketa erdi egituratua - Talde elkarrizketak ... 11
3.3.3. Elkarrizketa egituratua - Bakarkako elkarrizketak ... 11
3.3.4. Kontraste eta deboluzio saioak ... 12
3.4. Aspektu etikoak ... 12
3.5. Datuen analisia ... 12
3.6. Kronograma ... 13
4. PARTE HARTZE MAILA ... 13
4.1. Galdetegi itxia bete duten herritar kopurua eta profila ... 13
4.2. Talde elkarrizketetan parte hartu duten pertsona eta eragile kopurua eta beraien profila 15
4.3. Bakarkako elkarrizketetan parte hartu duten pertsona kopurua eta profila ... 16
5. JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA ... 17
5.1. Galdetegi itxien bidez jasotako informazioaren analisia ... 17
5.2. BANAKAKO ELKARRIZKETA ETA TALDE ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA ... 25
5.2.1. Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera ... 25
5.2.2. Zaintza politikak ... 29
5.2.3. Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzunkidetasuna ... 33
5.2.4. Urnietako Zaintza Ekosistema ... 36
5.3. ONDORIO NAGUSIAK ... 39
5.3.1. Esfera publikoa ... 39
5.3.2. Esfera pribatua ... 39

5.3.3. Esfera komunitarioa .......... 40
5.3.4. Familia zaintzaileen esfera .......... 40
5.3.5. Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera .......... 40
f) BIBLIOGRAFIA .......... 42
g) ERANSKINAK .......... 44
a. Eranskina 1: Galdetegi itxia .......... 44
b. Eranskina 2: Elkarrizketa erdi egituratua – Talde elkarrizketa .......... 47
c. Eranskina 3: Bakarkako elkarrizketa .......... 49

# 1. SARRERA

Urnietako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailetik, Urnieta zaintzak erdigunean jartzen dituen herria izateko egitasmo bat jarri da martxan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Matia Institutuaren eta Zabalduz Gizarte Ekimeneko kooperatiben bide laguntzarekin, Urnietako Zaintza Ekosistema.

Zaintza lanak antolatzeko eta gauzatzeko ditugun moduak, zerbitzuak, baliabideak eta formak birpentsatu eta eraldatzeko beharraren aurrean, Urnietako Zaintza Ekosistema artikulatzeko partaidetza prozesu bat jarri da abian, non gaur egungo zaintza beharren nahiz errealitatearen diagnostikoa egiteaz gain, datozen urteetarako bide orri bat diseinatu nahi den eragile publiko, pribatu nahiz komunitario guztien artean.

Prozesu honetan gainera, zaintzen horniduran zeresan nabaria duten norbanakoak ere parte hartuko dute. Zaintzaile profesional zein familiarrak. Eta nola ez, zaintza beharrak dituzten pertsonak.

Herri mailan zaintzak eman eta jasotzen dituzten eragile eta pertsona oro artikulatu nahi ditu egitasmo honek alegia, errealitatearen gaineko ikuspegi eta diagnostiko elkarbanatu batetik abiatuz, zaintzak antolatu eta gauzatzeko modua eraldatuz ekintza plan bateratu baten bidez.

Urnietako zaintza ekosistemaren garapenaren baitan, hainbat ekimen edo lan lerro (analisi soziodemografikoa, gizarte zerbitzuen zorroaren analisia, udaletik eskaintzen den arreta ereduaren eraldaketa…) ari dira aurrera eramaten. Hala ere, dokumentu honetan, Urnietako Zaintza Ekosistema egitasmoaren baitan burutu den diagnostiko kualitatiboa aurkituko duzue. Bertan, herriko norbanako, eragile publiko-pribatu-komunitario nahiz zaintzaile familiar eta profesionalen zaintzekiko eta zaintzen antolaketarekiko dituzten iritziak, hausnarketak, ikuspegi anitzak, proposamenak eta ondorio nagusiak aurkituko dituzue.

## 2. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN OINARRI TEORIKOAK

Diagnostiko kualitatibo honen atzean, hainbat oinarri teoriko eta akademiko daude eta garrantzitsua iruditu zaigu labur labur bada ere hemen jasotzea:

### 2.1. Zaintzak

Zaintzaz hitz egiten ari garenean, derrigorrezkoa da zaintzak pertsona ororen bizitzetan duen inpaktuaz hitz egitea; izan ere, denok baikara elkar-mendeko. Bizitzako edozein momentutan aurkitu gaitezke beste pertsona baten laguntzaren beharrean; jaio berriak garenean, laguntza emozionala behar dugunean, zailtasun edo mendetasun egoera baten aurrean gaudenean... Kasuan kasu, zaintzaz hitz egiten dugunean kontuan izan beharreko lehen aspektua hau da: denok gara elkar mendeko eta denok behar ditugu zaintzak gure bizitzako uneren batean.

Historian zehar, zaintza, pertsonei ongizate fisiko, psikiko eta emozionala eskaintzearekin lotu da (Finch 1989, Comas D'Argemir 1993). Nolanahi ere, kontuan izan behar da zaintzak ez duela gauza bera adierazten kasu guztietan (Saitua eta Sarasola 1993); izan ere, desberdina da, haurrak eta nerabeak zaintzea edo adineko pertsona bat zaintzea; desberdina da adineko pertsona osasuntsu bat zaintzea, bere kabuz baliatzen dena, edo erabat besteen mende dagoena (Saitua eta Sarasola 1993).

Gure mendebaldeko kultura patriarkalean, zaintza lanak genero rol banaketarekin bat etorri dira, hau da, emakumearen eginkizun gisa hartu dira lan hauek. Pautassi, Faur eta Gherardik (2004) azaltzen duten bezala, gaur egungo gizartean aurkitzen den errealitateak, emakumeen laneratze prozesuarekin besteak beste, lotura zuzena du. Emakumeek etxean kudeatzen zituzten zaintza lanak ezin izan dituzte alde batera utzi, edota elkarbanatu. Hau da, gizonezkoek bezala etxetik kanpo lanean egonda ere, etxeko lan eta zaintza lanak, ume zein adinekoek eskatzen dituztenak, emakumearen gain geratzen dira. Emakumeek jaiotzen diren momentutik barneratzen dute zaintza lanak bereganatu beharra dituztela.

Egia da, azken urteetan emakumeen ikuspuntua gai honekiko aldatzen joan dela. Tornsek (2005) dioen bezala, emakumeak nazkatzen hasiak dira lanean etxetik kanpo egoteaz gain, etxeko eta zaintza lanak oraindik gizartearen begietan emakumeen arduratzat hartzeaz.

Errealitate honen aldaketaz gain, gizarte mailan beste hainbat aldaketa sozial ere eman dira; hala nola, aldaketa demografikoak (biztanleriaren zahartzea), gizarte geroz eta indibidualistago baten joera, familia eredu berrien agerpena, lotura komunitarioen galera... Honek guztiak, zaintzen krisian murgiltzea eragin du. Zentzu honetan, itxialdiak eta Covid-19ko pandemiak

orokorrean, agerian utzi du orain arte zaintza lanak gauzatzeko ditugun moduak, zerbitzuak eta formak birpentsatu behar ditugula (Arrieta 2022).

Goikoetxeak (2020) aipatzen digun bezala, garrantzitsua da zaintza beharrak dituzten pertsonak zaintzerako garaian, gizartean dugun begirada soziala lantzea. Autorearen hitzetan, zaintza ez da soilik oinarrizko beharrak asetzeko zerbitzu eta esku-hartzeetara soilik mugatu behar; tratu oneko harremanak sortu behar dira, aitorpenean eta estimuan oinarrituta. Horrela, zaintzak harremanaren giza dimentsio bat hartzen du, non pertsonen erantzukizunean oinarritzen den, eta ez hainbeste zaintza beharrak dituzten pertsonen gabezia edo beharrizanekiko kezkan. Era horretara, pertsona orok, bere bizi-proiektua duintasunez garatu ahal izatea ahalbidetuz.

## 2.2. Zaintzaren krisia eta ongizate sistemen mugak

Azken urte hauetan asko izan dira zaintzen krisiaren arrazoiak eta ondorioak aztertu ulertu eta neurtzea xede izan duten ikerketak. Gaur egungo errealitate demografiko eta sozial berrien aurrean (biztanleriaren zahartzea, indibidualismorako joera, familia eredu berrien agerpenak…) herrialde ezberdinetako ongizate-sistemek eta bertako gizarteak zaintza beharrei erantzuteko dituzten gabezia eta mugak agerian gelditu dira, pertsona askoren bizitza kalitatean zuzenean eraginez:

> *“Egun, sistemak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera eratzen ez baditugu behintzat. Biztanleriaren zahartzeak, menpekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzeak, politika neoliberalen garapenak eta askotariko familia ereduen hedapenak (besteak beste, familia geroz eta txikiagoan eratzea) zaintzak antolatzeko moduetan inpaktu handia izan dute”* (Emagin 2020).

COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioak gainera are gehiago okertu du egoera, zaintzen krisian are gehiago sakonduz.

## 2.3. Dikotomiekin hautsiz

Ekonomia feministak egungo eredu sozioekonomikoa zalantzan jartzen du eta kapitala eta bizitza dikotomiaren arteko konfrontazioaren aurrean jartzen gaitu. Lanaren ulerkera produktibista gainditu eta lanaren kontzepzioa lan erreproduktiboaren eta zaintzaren eremura irekitzea proposatzen duen marko teoriko alternatiboa proposatzen digute ekonomialari feministek. Genero berdintasunaren aldarrikapenetik haratago, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duen eta merkatua, lan ordaindua eta ez ordaindua, produktiboa eta erreproduktiboa barne biltzen dituen marko kontzeptual berri bat (Borderías, M et al., 1994; Pérez Orozco 2019). Honekin batera, pertsona autonomo eta mendekoen dikotomia gainditzearen beharra ere azaleratzen da eta gizakiok elkar mendekoak garela jartzen da oinarrian.

> *"Todas las personas en todos los momentos de nuestras vidas necesitamos cuidados porque nuestras vidas son vulnerables. Esto nos impone pensar la economía desde un enfoque de interdependencia, cuestionando la estricta distinción entre sujetos autosuficientes y dependientes"* (Pérez Orozco 2019)

## 2.4. Erantzunkidetasuna eta ardura soziala: Elkarlan publiko-komunitarioaren erronka

Zaintza ekosistema bezalako egitasmo bat aurrera eramateko ezinbestekoa da, ardura sozialaren edota erantzukidetasunaren inguruan hitz egitea. Hurrengo lerroetan, zaintza ekosistemaren baitan elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko edota zaintzen antolaketa eraldatzeko orduan ardura sozialak eta erantzukidetasunak duen garrantziaz hitz egingo da.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da ardura bera zer den ondo ulertzea. Berman (1997) autorearen hitzetan: ardura, beste norbanakoen eta planetaren ongizatea lortzeko egiten dugun inbertsio pertsonal gisa ulertu behar da. Hau da, ardura besteak nola tratatzen ditugun eta beraiekin dugun elkarbizitzan oinarritzen da. Inguruan dugun edonorekiko errespetu eta berdintasunean sinisten badugu, ardura beste betebehar bat bezala ulertzen du autoreak.

Gizartean eman diren aldaketen barruan, ardura kontzeptuaren eraldaketa bat aurkitzen dugu ordea. Ardura komunitarioak arlo sozialeko profesioetan garrantzi handia irabazi du. Cabrerak (2006) dioen bezala, ardura soziala kontzeptuak, konpromezu ekonomiko bezala ulertzetik, gizartearekiko konpromezu gisa ulertzerako jauzia eman du.

Moriren (2009) hitzetan, duela gutxi arte, arduraren gainean gizartean gailentzen zen ikuspegia enpresen ikuspegia zen. Hau da, arlo soziala alde batera utziz, arlo ekonomikoak zuen soilik garrantzia. Hala ere,, autoreak defendatzen duen moduan, ikuspegi komunitario arduratsu bat txertatzen hasia da gizartean. Komunitatean oinarritutako gizarte arduratsu bat lortzeko, autoreak guztiz beharrezkoa ikusten du gizarteak, enpresek eta estatuek elkarlanean herri eta hiriak garatzea. Azken finean, gizarteak garapen bat izatea nahi badugu, ikuspegi komunitarioa izan eta ardura soziala erdigunean jartzea ezinbestekoa da (Mori, 2009).

Ardura zergatik den hain garrantzitsua eta gizartean bizi garelako arduratsuak izan behar garela ikusteko, Schwald-ek (2004) ardura kontzeptualizatu egiten du ekintzetan oinarritutako filosofia gisa. Hau da, gizartearen parte den pertsona orok bere ekintzen ardura du, onerako eta txarrerako. Bakoitza bere ekintzekin ondoko banakako edo talde bati egin diezaiokeen onura edo kaltearen ardura soziala duela dio. Hau da, ardura komunitatearen parte diren beste kideekin lotzen du, elkar zaintza denon ardura dela defendatuz. Beraz, ardura soziala ez da banakakoari kanpo geratzen zaion errealitate bat, baizik eta komunitatearen parte den orori dagokion ardura komunitario sozial bat (Montero 2004).

Ardura eta komunitatearen arteko lotura hobeto ulertzeko Monterok (2003) landutako ideiak erabiliko ditugu. Aldaketa sozial bat aurrera eramateko erraminta boteretsuena komunitatea dela dio; baina, ezingo da prozesu komunitariorik aurrera eraman agente sozialik gabe. Zentzu honetan, komunitatearen parte diren agente sozialek komunitatearekiko eta bertan gauzatuko diren ekintzekiko ardura hartu behar dute, banakakoaren ardura sustatuz. Aldi berean, aldaketa sozial horretan sinistu ahal izateko banakako orori komunitateak ematen dio parte hartzeko aukera, komunitateko helburu, balore eta oinarriak ezartzeko beta, eta arazoa problematizatzeko eta irtenbideak bilatzeko bidea (López-Cabanas eta Chacónek 1999). Horregatik, Monterok (2004) komunitatean arduraz parte-hartzea garapen pertsonalerako bide gisa ulertu daiteke.

# 3. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN HELBURUAK ETA LAN METODOLOGIA

## 3.1. Diagnostikoaren helburuak

Diagnostiko kualitatiboa, herritarren eta herriko eragileen begirada soziala, sentsibilizazioa eta aktibazioa sustatzeko tresna izateaz gain, zaintzen ingurumarian interaktuatzen duten esferen ikuspegi, iritzi eta proposamenak jasotzeko medio ere bada. Ondorioz, diagnostiko kualitatiboak askotariko helburuak lortzea ahalbidetzen du.

Hurrengo zerrenda jaso ditugu diagnostikoaren helburu espezifikoak:

- Zaintzaren inguruko hausnarketa eta sentsibilizazioa sustatu.
- Zaintzen gaineko begirada soziala eta erantzukidetasuna sustatu
- Eragile sozialak identifikatu eta aktibatu.
- Ehun komunitarioen saretze maila eta dinamika ezagutu.
- Erakunde publikoen eta ehun komunitarioaren arteko harremana aztertu
- Herritarrek eta eragileek zaintzaren inguruan duten ulerkera edo kontzepzioa ezagutu.
- Herritarrek eta eragileek zaintza politiken edo gizarte zerbitzuen gainean duten ezagutza maila eta iritzia ezagutu.
- Zaintzen ardura edo erantzukidetasunarekiko norbanako eta eragileek dute iritzia ezagutu edo ikuspegia ezagutu.
- Zaintzen gaineko ikuspegi anitzak jaso (esfera ezberdinen ikuspegia) eta elkarren arteko ezagutza eta enpatia landu.
- Zaintza ekosistemaren artikulazioa sustatu. Esfera ezberdinen arteko lankidetza sustatu.

## 3.2. Parte hartzaileak eta lan metodologia

### 3.2.1. Talde motorra

Urnietako Zaintza Ekosistema egitasmoaren diseinu, garapen eta jarraipenerako talde eragile bat sortu da. Talde honek udalaren, Matia Institutuaren eta Zabalduz Kooperatibako lan-taldearen arteko eguneroko koordinazioa bermatzeaz gain, egitasmo osoaren koherentzia bermatu du.

Diagnostiko kualitatiboaren diseinu eta garapena ere talde motor honetatik kudeatu da eta zehazki hurrengo funtzioak hartu ditu bere gain gobernantza espazio honek:

- Diagnostiko kualitatiboaren kodiseinua
- Informazio biltzeko tresnak aztertu eta egokitu
- Eragileen identifikazioa eta zerrendatzea (kontaktuak barne)
- Diagnostiko kualitatiboan parte hartu duten pertsona eta eragileekin harremanak koordinatu
- Diagnostiko kualitatiboaren komunikazio plana eta ekintzak diseinatu eta gauzatu
- Deboluzio saioen antolaketa eta koordinazioa
- Diagnostikoaren jarraipen orokorra

Talde motorra hurrengo kideek osatu dugu:

| Talde motorra | |
|---|---|
| **Urnietako Udala** | Gizarte zerbitzuetako arduraduna: Itziar Olazabal<br>Gizarte langilea: Makote Urkizu<br>Arduradun politikoa: Consuelo Frutos |
| **Matia Fundazioa** | Matia Fundazioko teknikariak:<br>• Nerea Etxaniz<br>• Amaia Olano<br>• Marta Moreno |
| **Zabalduz Kooperatiba** | Zabalduz Kooperatibako teknikariak:<br>• Andoni Zulaika<br>• Miren Peña<br>• Katrin Etxebeste |

Udalak proiektuaren lidergoa izatea oso garrantzitsua izan da diagnostiko kualitatiboa martxan jartzeko. Alde batetik, udalak diagnostikoa garatu ahal izateko garrantzitsuak diren informazioa eta kontaktu asko eskaini dituelako, eta beste aldetik, aurretik informatu edota haiekin harremanetan jartzen lagundu duelako.

### 3.2.2. Parte hartzaileen profila

Diagnostiko kualitatibo honetan erabili den lan metodologia parte hartzailea izan da eta ahalik eta subjektu gehienen ikuspegia jasotzea bilatu da.

Parte hartzaileak, bost esfera nagusitan sailkatu dira:

- Esfera komunitarioa: herritarrak, herriko eragileak, tokiko merkataritza eta elkarteak

- Esfera publikoa: udaleko sail ezberdinetako udal teknikariak
- Esfera pribatua: zaintza edo gizarte zerbitzuen edo baliabideen entitate kudeatzaileak (3.sektore sozialeko entitateak eta enpresak
- Esfera familarra: Zaindari Laguntza Taldea
- Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera: Loratu taldea

Esfera bakoitzeko eragile eta pertsonen profila oso anitza da eta ondorioz informazio biltzeko metodologia eta tresna ezberdinak erabili dira. Era horretara, diagnostikoan ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea ahalbidetuz.

Informazioa jasotzen joan garen neurrian, eragile batzuk beste eragile edo baliabide batzuetara iristeko bidea ireki dute, diagnostiko etengabe elikatzen jarraituz. Modu honetan “ur jauzi efektua” delakoa garatu du, harremanetan jarri garen eragileek beste batzuk identifikatzea erraztu baitute. Guzti honek herri mailan zaintzen gaineko hausnarketa eta sentsibilitatea piztu eta herritarrak zein eragileak aktibatzea ekarri du berekin.

Hurrengo eskema honetan laburbildu dugu diagnostiko kualitatiboa diseinatu eta garatzeko erabili den lan metodologia:




## 3.3. Informazioa biltzeko tresnak

Eragileak identifikatzearekin batera, haietara hurbiltzeko estrategiak eta informazio-bilketa egiteko tresnak diseinatu dira. Hiru tresna nagusi erabili dira: galdetegi itxia, elkarrizketa erdi-egituratua (talde elkarrizketak) eta elkarrizketa egituratua (bakarkako elkarrizketa).

### 3.3.1. Galdetegi itxia

Galdetegi itxiaren bitartez Urnietako zaintzen eta zaintzen antolakuntzaren pertzepzioa jasotzea izan dugu helburu eta herritar zein eragile guztientzako ireki den galdetegia izan da (1. eranskina).

Galdetegi egituratu honek 21 puntu ditu. Horietatik 19 galdera itxiak dira; tartean, 5 puntuetan, ekarpen zabalagoak adierazteko aukera eskaintzen da, jarduteko moduei, baliabideei eta iradokizunei dagokienean; eta bukatzeko, azken 2 puntu daude edozein ideia, iradokizun edo kontaktu errazteko.

Galdetegi egituratu hau, online formatuan zein paperezkoan pasa da, pertsona eta herritar ororen parte hartze errazte aldera. Paperezko formatuari dagokionez, galdetegi bana bidali zen udalerriko etxe guztietara, eta udal eraikuntza zein herriko puntu ezberdinetan buzoi eta kutxetan entregatzeko aukera ere eskaini zen. Bestalde, online formatuan ere zabaldu da galdetegia, identifikatutako zerbitzu, eragile eta elkarte guztien artean.

### 3.3.2. Elkarrizketa erdi egituratua - Talde elkarrizketak

Elkarrizketa erdiegituratuak, *focus-group* edo talde elkarrizketa formatuan gauzatu dira eta saioak dinamizatzeko galdera irekiz osatutako gidoi erdiegituratu bat erabili da (2. eranskina).

Helburua, beren jardun pertsonak, sozial edo profesionalagatik, zaintzekin harreman zuzena duten pertsona edo eragile erreferenteekin (eragin handiko eragileak) elkarrizketa sakonago bat egitea izan da.

Talde elkarrizketa erdi egituratuak lau alor nagusitan sailkatu dira:

- Zaintzekiko kontzepzioa, ikuspegia eta bizipena
- Zaintza politikak
- Zaintzen erantzunkidetasuna
- Urnietako Zaintza Ekosistemaren beharra

### 3.3.3. Elkarrizketa egituratua - Bakarkako elkarrizketak

Bakarkako elkarrizketak, galdera irekietan oinarritutako gidoi egituratu batean oinarritu dira (3. eranskina) eta sakontasun maila handiagoa bilatu dute.

Beren jardun, erantzukizun edo garrantziagatik, modu profesional edo pertsonal batean Urnietako zaintzen errealitatetik gertu egon daitezkeen pertsona esanguratsuei egin zaizkie elkarrizketak eta 15 elkarrizketa gauzatu dira guztira.

Lau ataletan sailkatu dira galderak:

- Zaintzekiko kontzepzioa edo ulerkera, ikuspegia eta bizipena
- Zaintza politikak
- Zaintzen erantzunkidetasuna eta komunitatearen parte-hartzea
- Urnietako Zaintza Ekosistemaren beharra

#### 3.3.4. Kontraste eta deboluzio saioak

Behin parte-hartzaileek emandako informazioa transkribatu eta jasotako ideia garrantzitsuenak sailkatu ondoren, esfera bakoitza osatzen duten ordezkariekin elkartu, eta deboluzio saioak egin dira. Era horretara, jasotakoa kontrastatu, balidatu, osatu, eta ideia garrantzitsuenak azpimarratzeko asmoz. Bertaratu ez diren parte-hartzaileen ekarpenak jaso eta hauen parte-hartzea bermatzeko helburuarekin, *forms* inkestak ere zabaldu dira.

### 3.4. Aspektu etikoak

Aipatzekoa da diagnostikoaren prozesu guztian zehar, parte hartzaile guztien anonimotasuna bermatu da eta parte hartzea boluntarioa izan da.

### 3.5. Datuen analisia

Atal honetan jasotako informazioaren analisia egiteko bi metodologia nagusi erabili dira:

1. Batetik, “*Forms Formularios*” aplikazio informatikoaren bidez galdetegi itxietako erantzunak zentralizatu ahal izan dira datu base batean. Galdetegi itxien egiturari esker eta aplikazioak berak ematen duen aukera aprobetxatuta, emaitzak modu kuantitatiboan jaso eta modu grafikoan irudikatu ahal izan ditugu.
2. Bestetik, banakako nahiz taldekako elkarrizketa erdi-egituratuetik ateratako informazioa transkribatu, aztertu eta lau alor nagusitan sailkatu dugu.

Sailkapena, elkarrizketak egituratzeko erabili diren ardatzen baitan egin da. Aipatzekoa da, sailkapena egiteko ez dela inongo baliabide teknologikorik erabili, eta eskuz egin den prozesu bat izan dela.

### 3.6. Kronograma

| Urnietako Zaintza Ekosistema<br>Diagnostiko kualitatiboaren kronograma | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zereginak | Apirila | | | | Maiatza | | | | Ekaina | | | |
| Talde motorra osatu. Planifikazioa | X | X | X | X | | | | | | | | |
| Tresnen diseinua (Galdetegia eta elkarrizketa) | | X | X | X | | | | | | | | |
| Pertsona eta eragileen identifikazioa. Kontaktuen zerrenda | | X | X | X | X | X | | | | | | |
| Komunikazioaren planaren diseinua | | X | X | X | | | | | | | | |
| Komunikazioa (eskutitza eta mailing.) | | X | X | X | | | | | | | | |
| Elkarrizketak burutzea | | | X | X | X | X | X | X | | | | |
| On line galdetegia irekita | | | | X | X | X | X | X | | | | |
| Diagnostiko kualitatiboko txostenaren erredakzioa | | | | | X | X | X | X | X | X | X | X |

## 4. PARTE HARTZE MAILA

Atal honetan, era batera edo bestera diagnostiko kualitatiboan parte hartu duten eragile eta norbanakoen gaineko informazioa jaso dugu.

### 4.1. Galdetegi itxia bete duten herritar kopurua eta profila

Galdetegi itxia paperean edo online betetzeko aukera eskaini da eta ahalik eta pertsona gehienek betetzea bilatu da. Horretarako, hainbat difusio kanal erabili dira:

- Buzoneoa: Urnietako etxe guztietara bidali zen maiatzaren 7an eskuorri informatibo batekin batera. Eskuorri berberean, QR kode bat atxikitu zen nahi duenak zuzenean bakoitzaren mugikorretik bete ahal izateko. Herritarrek galdetegi itxia beraien etxeetan lasai betetzeko aukera izan dute eta ostean, jasotze puntu ezberdinak jarri dira herritarrek galdetegi beteak entregatu ahal izateko
- Jasotze puntuetan galdetegiak herritarren eskura jarri dira.

- Posta elektroniko bidez herri eragile, entitate eta udal sail ezberdinen artean zabaldu da galdetegi itxia.
- *Whatsapp* sare sozialaren bidez galdetegia ahalik eta gehien zabaltzeko mezu bat ere prestatu zen. Era horretara, mugikorretik modu azkar batean galdetegia online betetzeko erraztasunak eskainiz.

Inkestak bete ahal izateko, 20 eguneko tartea eskaini zen eta guztira**, 91 pertsonek erantzun dute.**

Hurrengo taulan galdetegi itxia erantzun duten pertsonen ezaugarri orokorrak eta zenbatekoak jaso ditugu:

<table>
<tr><th colspan="3">Galdetegi itxia</th></tr>
<tr><td colspan="3">Parte-hartzaile kopurua</td></tr>
<tr><td colspan="3">91 pertsona</td></tr>
<tr><td colspan="3">Generoa</td></tr>
<tr><td>Gizonezkoa:<br>20 pertsona (%78)</td><td>Emakumezkoa:<br>71 pertsona (%22)</td><td>Ez binarioa:<br>0 pertsona (%0)</td></tr>
<tr><td colspan="3">
</td></tr>
<tr><td colspan="3">Udalerria</td></tr>
<tr><td>Urnieta: 88</td><td colspan="2">Beste bat: 3</td></tr>
<tr><td colspan="3">Adin-tartea</td></tr>
<tr><td>16-24 urte: 1<br>25-34 urte: 3<br>35-44 urte: 15</td><td>55-64 urte: 17<br>65-74 urte: 13<br>75-84 urte: 9</td><td>85 ≥ urte: 3<br>Beste bat: 1</td></tr>
</table>




Adin-tarteari dagokionez, parte-hartzaileen proportzio handienak 45-54 urte bitarteko adina dauka %32a izanik (29 pertsona). 55-64 urte bitartekoak, parte-hartzaileen %19a dira (17 pertsona) eta hauen ondoren, 35-44 urte bitarteko biztanleria izan da galdetegia erantzun duen hirugarren zati handiena, %16arekin (15 pertsona). Hauen atzetik, 65-74 urte bitartekoak %14arekin (13 pertsona), 75-84 urte bitartekoak %10arekin (9 pertsona), 25-35 adin-tartea eta 85 urte edo gehiago dituztenak izan dira bakoitzean %3a izanik (3 pertsona adin tarteko). Eta azkenik 16-24 adin-tartean eta beste adin-tarte bateko partaide izan dira bakoitzean %1a izanik, (pertsona bat adi-tarteko).

## 4.2. Talde elkarrizketetan parte hartu duten pertsona eta eragile kopurua eta beraien profila

Tresna metodologiko hau erabilita guztira **52 pertsona elkarrizketatu ditugu** 2024ko apirilaren 24tik maiatzaren 25era. Nahiz eta guztira 25 eragile ezberdinekin egon garen, kasu batzuetan, eragile bateko kide batekin baino gehiagorekin elkartu gara.

Informazioa biltzeko espazioa, Urnietako Elkarteen Etxea izan da, eragile batzuen kasuan, haien dinamikak aurrera eramaten dituzten espazio naturala izanik. Elkarrizketak eragileen espazio propioetan egiteak, batetik beraien ingurua ezagutzeko aukera ematen digu, eta era berean, elkarrizketatuak erosoago sentitu ahal izan dira.

Elkarrizketatuen profilari erreparatuz gero, generoari dagokionez, 36 emakume elkarrizketatu dira, eta 14 gizonezko. Nabarmentzeko datua da honakoa.

Hala ere, hurrengo taulan jaso ditugu parte hartze datu orokorrak:

| Elkarrizketa erdi egituratua – Talde elkarrizketak | | |
|---|---|---|
| **Talde elkarrizketa kopurua** | | |
| 5 talde | | |
| **Parte hartzaileak (Pertsona kopurua eta eragile kopurua)** | | |
| 52 eragile/subjektu | | |
| **Generoa** | | |
| Gizonezkoak: 14 | Emakumezkoak: 38 | Ez-bitarrak: 0 |
| **Esferak eta taldeak** | | |
| 1. Esfera publikoa: | Udal teknikarien taldea | |
| 2. Esfera pribatua: | Zaintza zerbitzu hornitzaileak | |
| 3. Esfera komunitarioa: | - Bagara Talde Feminista<br>- Herriko eragile edo elkarteen taldea:<br>o Odol Emaileen elkartea<br>o Aurrera Markelekin<br>o Pausoka<br>o Jostaleku<br>o Denda berri jubilatuak<br>o Urnietako Kirol Elkartea<br>o Aballar guraso elkartea | |
| 4. Esfera familiarra: | Zaindari Laguntza Taldea | |
| 5. Pertsonen esfera: | Loratu, zaintzak behar dituzten pertsonen taldea | |

## 4.3. Bakarkako elkarrizketetan parte hartu duten pertsona kopurua eta profila

Elkarrizketa egituratuari dagokionez, Urnietako 15 pertsona edo eragile ezberdinekin bakarkako elkarrizketak egiteko aukera izan dugu. Eragile hauen artean, merkatariak, inpaktu handiko eragile sozialak edota egoera ezberdinak bizitu dituzten pertsonak elkarrizketatu ditugu. Baina, baita udal sail ezberdinetan lan egiten duten teknikariak ere.

Informazioa biltzeko, eragileen espazio propioetara gerturatzen saiatu gera gehien bat, izan ere, beraien erosotasuna bermatzeaz gain, beraien testuingurua hobeto ulertzen laguntzen digulako.

Hala, guztira 15 bakarkako elkarrizketa egin ditugu.

| **Elkarrizketa erdi egituratua – Talde elkarrizketak** | | |
|---|---|---|
| **Elkarrizketa kantitatea** | | |
| 15 elkarrizketa | | |
| **Parte hartzaileak** | | |
| 15 pertsona | | |
| **Generoa** | | |
| Gizonezkoak: 5 | Emakumezkoak: 10 | Ez binarioak: 0 |
| **Esferak eta taldeak** | | |
| Esfera Publikoa: | Udal teknikariak | |
| Esfera komunitarioa: | Herritarrak, eragile sozialak eta komertzialak | |

# 5. JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA

## 5.1. Galdetegi itxien bidez jasotako informazioaren analisia

Ondoren, galdetegi itxiaren (Eranskina 1) bidez jaso diren emaitzak aurkeztuko dira:

**1. Gaur egun Urnietan bizi zara?**




Parte-hartzaileen %97a (88 pertsona) Urnietan bizi dira gaur egun, eta %3a (3 pertsona) Urnietatik kanpo.

## 2. Eskala horretan, zenbateko garrantzia dute zaintzek gizartearen ongizaterako?




Gizartearen ongizatean zaintzak beharrezkoak direla pentsatzen duten 77 pertsona (%85) izan dira guztira, erdi mailako garrantzia dutela uste dutenak 11 pertsona (%12) eta garrantzirik ez dutela pentsatzen duten 3 pertsona (%3).

## 3. Uste duzu administrazio publikoak prest daudela zaintzekin lotutako erronkei heltzeko?




Erantzun dutenen artean, %73ak (66 pertsonek) Administrazioa zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prest ez dagoela uste du. %16ak (15 pertsonek) baiezkoa erantzun dute eta %11ak (10 pertsonek) beste erantzun bat aukeratu dute.

## 4. Eta komunitatea?




Komunitatea ere, erronka hauei aurre egiteko prest ez dagoela uste da orokorrean. Izan ere, %75ak (68 pertsonek) ezezkoa erantzun dute, %18ak baietz (16 pertsonek) eta %8ak (7 pertsonek) beste aukera bat erantzun dute.

## 5. Eta familiak?




Familien kasuan, baita, orokorrean eman den iritzia ez da aurrekoengandik asko bereizten, baina erronka honi aurre egiteko gaitasun gehiago dituela uste den esfera kontsideratu da. Parte-hartzaileen %73ak (66 pertsona), familiak prest ez daudela uste du eta %27ak (25 pertsona) baietz, ordea.

## 6. Ba al duzu zaintza edo laguntza behar duen gertuko pertsonarik?




Galdetegia bete dutenen %75ak (67 pertsonak) laguntza edo zaintzak behar dituen norbait dauka bere inguruan. %20ak (18 pertsona) ez, eta %4ak (4 pertsona) beste aukera bat erantzun du.

## 7. Zure kasuan, laguntza edo zaintza behar duzu?




Parte-hartzaileen %35ak (32 pertsona) laguntza edo zaintza beharrak dituela adierazi du, %63ak (57 pertsona) ezetz, eta %2ak (2 pertsona) beste egoera baten erantzuna aukeratu dute.

### 8. Urnietako Udalak egungo zaintza beharrei erantzuna ematen diela uste duzu?




Urnietako Udalak egungo zaintza beharrei erantzuten diela uste duten %23 (21 pertsona) daude, %59ak (54 pertsona) ezezkoa erantzun du eta %18ak (16 pertsona) beste aukera bat erantzun dute.

### 9. Udal politikek pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituztela uste duzu?




Urnietako Udal politikei dagokienez, parte-hartzaileen %27ak (23 pertsona) pertsonak erdigunean jartzen dituztela uste du. Ordea, erantzuleen %73ak (63 pertsonek), politika hauek pertsonak erdigunean jartzen ez dituztela erantzun dute.

### 10. Behar horiei ikuspegi publiko-komunitario batetik heldu beharko litzaiekeela uste duzu?




Erantzuleen %94ak (85 pertsona) erronka eta behar hauek ikuspegi politiko-komunitario batetik heldu behar direla uste du, eta %6ak (5 pertsona) aurkako iritzia dauka.

**11. Zaintza lanak erdigunean jartzen dituen herria dela uste duzu Urnieta?**




Urnietari begira, zaintzak erdigunean jartzen dituen udalerria dela kontsideratzen dutenak %30 (26 pertsona) dira. Bestalde, erantzuleen %70ak (62 pertsona) ezezko erantzuna eman du.

**12. Eskala honetan, nola puntuatuko zenuke Urnietako herritarrek zaintzekiko duten sentsibilizazio maila?**




Herritarrak sentsibilizatuta daudela uste duten parte-hartzaileak %7a (6 pertsona) izan dira eta erdi mailako balorazioa eman diotenenak %20a (18 pertsona). Baina orokorrean, parte-hartzaileen artean gailendu den iritzia sentsibilizazio murritza edo gutxiko herria dela izan da, %69ak (63 pertsonek) erantzun duenaren arabera.

**13. Ezagutzen al dituzu Urnietan zaintzak integratzen edo sustatzen dituzten auzoko/komunitateko jarduerak?**




%76ak (66 pertsona) ez ditu zaintzak integratzen dituzten auzo/komunitateko jarduerak ezagutzen. %20ak (18 pertsona) bai, eta %3ak (3 pertsona) beste erantzun bat eman du.

## 14. Hala bada, zeintzuk?

| |
|---|
| Ayudas para que esteen a soledade .actividades ,e mucas mas |
| Grupo de apoyo a quienes cuidan. |
| Hogar de jubilados, centro de día, los talleres de las mañanas, gimnasia |
| Bailes para los mayores ,cursillos para las mujeres empoderamiento y ese tipo de temad |
| Dendaberri elkarteak |
| Bidez Bide |
| El grupo de cuidados a cuidadoras/es |
| GRUPÒ DE CUIDADORES |
| centro de dia, talleres matinales |

## 15. Horietako baten parte izan zara?




Ekimen hauetan parte hartu dutenak %7a (6 pertsona) izan dira. Baina ehunekoaren zati handienak, %93ak ( 79 pertsona) ez du inoiz parte hartu izan.

## 16. Zeinetan?

Etxeberriko kulturaniztasun festan, Eguzkitan Blai, Ludoteka, Jostalekua,...

en la gimnasia, pero ya no puedo. Y he ido al bingo por ver gente pero es muy muy aburrido.

Cursos,e información, empoderamiento de la mujer

Bidez Bide garraio zerbitzuan, bertako langilea naizelako

GRUPO DE CUIDADORES

## 17. Inoiz zaindu duzu zure familiatik edo inguruko zirkulutik kanpoko inor?




Familiarra ez den eta inguruko zirkulutik kanpo dagoen inor zaindu duten %36a (31 pertsona) daude erantzuleen artean, eta %64ak (54 pertsona) ez du inoiz horrelako zaintza ardurarik hartu.

## 18. Urnietan Zaintza Ekosistema bat beharrezkoa dela uste duzu?




Erantzuleen %93ak Urnietako udalerrian Zaintza Ekosistema bat beharra dagoela uste du. %7ak (6 pertsona), ordea, beharrezkoa ez dela adierazi du.

## 19. Gustatuko litzaizuke bertan parte hartzea?




Galdetegi itxian parte hartu dutenen artean, %63ak Zaintza Ekosisteman parte-hartzeko borondatea duela adierazi du eta %37ak (31 pertsona) ezezko aukera erantzun du.

## 20. Gustatuko litzaizuke horren inguruko iruzkin, iradokizun edo ekarpenik egitea?

**Respuestas**

En el centro de día estaría bien que pusieran unos toldos para los mayores, estarían fuera tomando el aire

respuesta (10 a la 15 inventadas Makote- papel estropeado). ME GUSTARIA QUE A LAS TARDE SE ORGANIZARAN JUEGOS DE MESA, GIMNASIA SENTADOS EN UNA SILLA ADAPTADA A PERSONAS DE MÁS DE 88 AÑOS, ACTIVIDADES EN LAS PE PODAMOS REIRNOS, JUNTARNOS CON NIÑOS/AS Y CONTARLES NUESTRAS HISTORIAS, VIVENCIAS, PODER COMPARTIR NUESTRAS EXPERIENCIAS

En el ayuntamiento de Oiartzun hay un servicio de salidas en autobus , dos por semana en personas mayores de 80 años, de una duración de 3 horas donde van a pasar la tarde y socializar

veo la necesidad de algunas actividades por las tardes para nuestros mayores que alguien les lea, les hable de algún tema que les interese, que jueguen, costura, punto. He estado en el bingo de los jubilados y esa actividad es para matar el tiempo, justo lo que no tienen de sobra

RESPONDO ASÍ PORQUE DE MOMENTO ESTOY BIEN. MAS ADELANTE NO SE SI ESTARÉ BIEN ATENDIDA

PUBLIKOA

PUBLIKOA DENA

Si, el "Herri Akordioa" planteado en la pasada huelga feminista del #30N como marco general de trabajo. A partir de él, trabajarlo a nivel específico de Urnieta.

Creo que Urnieta necesita mas servicios para la tercera edad, como una residencia y apartamentos tutelados.

## 5.2. BANAKAKO ELKARRIZKETA ETA TALDE ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA

Informazioaren analisia, hurrengo 4 alor nagusitan sailkatu da:

1. Zaintzaren gaineko kontzepzioa edo ikuskera
2. Zaintza politikak
3. Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzunkidetasuna
4. Zaintza ekosistema baten beharraren gaineko ikuspegia

Alor bakoitzaren inguruan esfera bakoitzeko norbanako eta eragileek galdetegia itxiaren, bakarkako elkarrizketa edota talde elkarrizketen bidez adierazi dutena jaso da.

### 5.2.1. Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera

#### *a) Esfera publikoa*

Esparru publikotik, Urnietako Udaleko teknikariek funtsezko hainbat printzipiotan oinarrituta ulertzen eta antolatzen dituzte zaintzak. Lehenik eta behin, norberaren zaintzaren beharra ikusaraztearen garrantzia nabarmentzen da, zaintza norberarengandik hasten dela aitortuz. Autozaintza sustatzea ezinbestekoa da oinarri sendoa ezartzeko, pertsonek besteak eraginkortasunez zaindu ahal izan ditzaten.

Era berean, zaintzaileak zaintzearen garrantzia azpimarratzen da. Udal teknikariek onartu dute zaintzak eskaintzen dituzten pertsonek, familiakoak zein profesionalak izan, laguntza eta arreta jaso behar dutela nekea edo akidura saihesteko eta hartara, ongizatea ziurtatzeko. Behar horri aurre egiteko, baliabide eta laguntza-programa espezifikoak ezartzen dira, hala nola, Zaindari taldea bezalako laguntza-taldeak, zaintzaileen artean kohesioa eta elkar laguntza lortzeko espazioak eskaintzen dituztenak.

Horretaz gain, azpimarratu dute Urnietako Udalak emandako laguntza eta zerbitzuen eskaintza zaintza integralaren ikuspegitik egiten saiatzen dela, herria osorik zaintzeko helburuarekin. Udal-zerbitzuak oinarrizko beharrak asetzeko diseinatzeaz gain, komunitate osoaren ongizate eta osasun sozial, emozional eta fisikoa sustatzeko ere diseinatuta daude. Horren barruan sartzen da autonomia, integrazio komunitarioa eta mendekotasun egoeren prebentzioa sustatzen duten programa eta zerbitzuen inplementazioa, hala nola eguneko arreta zerbitzuak eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ).

Laburbilduz, Urnietako eremu publikotik, zaintzak autozaintzaren bisibilizazioaren, zaintzaileentzako laguntzaren eta udal zerbitzuen ikuspegi integralaren inguruan ulertzen eta antolatzen dira, betiere komunitate osoaren ongizatea eta osasuna bilatuz.

### *b) Esfera pribatua*

Urnietako udalerriaren esfera pribatuan, zaintzak emateko zerbitzuak erabiltzaileen behar espezifikoei erantzutearen arabera hautematen eta antolatzen dira, nahiz eta pertsona bakoitzaren bizi-proiektuan arreta handiagoa jartzen duen eredu baterantz eboluzionatzeko beharra aitortzen den. Gaur egun, zaintzak hainbat zerbitzuren bidez egituratzen dira, besteak beste, eguneko arreta, etxez etxeko laguntza, zaintzaileentzako laguntza eta garraio egokitua. Zerbitzu horien helburua parte-hartzea, integrazioa eta jarraipen pertsonalizatua sustatzea da, norbanako bakoitzaren nahietara eta inguruabarretara egokituz.

Adibidez, Eguneko Arreta Zerbitzua (Loratu) parte-hartzaileen integrazio aktiboan oinarritzen da, eta haien lehentasunei buruzko informazioa biltzen du lanean hasi aurretik. Era berean, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak (ELZ) bereizi egiten ditu etxeko zerbitzuak eta zerbitzu pertsonalak, erabiltzaileen behar aldakorren arabera laguntza doitzeko bisita erregularrak egiten dituzten koordinatzaileekin. Gainera, Zaintzaileentzako Laguntza Taldeak (zaindari taldea) gune kohesionatu bat eskaintzen du, eta talde horrentzat erreferentziazko figura bat egotea balioesten du. Garraio egokituko zerbitzuek, hala nola Bidez-Bidek eta Aterak, harreman estua dute erabiltzaileekin, testuinguru desberdinetan dituzten beharrak sakonki ezagutu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, ahalegin horiek gorabehera, onartzen da eremu pribatuko zaintzak zatikatuta egon ohi direla eta momentuko beharretan zentratzen direla, pertsonaren ongizatearen ikuspegi orokor eta jarraitu batean baino gehiago. Gero eta kontzientzia handiagoa dago gizabanako bakoitzaren bizi-proiektu osoa kontuan hartzen duen eredu integratu eta koordinatu baterantz aurrera egiteko beharrari buruz, bai bere behar fisikoei, bai bere lehentasun eta desio pertsonalei erantzunez.

### *c) Esfera komunitarioa*

Urnietako komunitatearen esferan, zaintza, autonomia galeraren edo gaitasun faltaren erantzun gisa ikusten da nagusiki hasiera batean, eta horrek beharrezko beste zaintza mota batzuk ikusezin bihurtzera jotzen du. Erreflexioa sakontzen doan heinean, zaintza mota ezberdin hauek ikusteko gaitasuna dago, baina hala ere, gailentzen den pertzepzio honek ikuspegi mugatu bat sustatzen duela ikusten da, eta zaintzak modu zabalago batean ulertzeko beharra dagoela

aitortu eta aldarrikatzen da. Antolaketari begira, agerian dauden zaintzak (gailentzen direnak) eta agerikoak ez diren zaintzetan (ezkutuan geratzen diren gainontzeko zaintza motak) bereizten direla ikusten da. Hartara, zaintzen antolaketak garatzerako garaian, erronka garrantzitsuak dituela azpimarratuz, hala nola, agerikoak diren zaintzen arrazializazioa eta agerikoak ez diren zaintzen antolaketa emakumeen gain erortzen dela ondorioztatuz. Gainera, zaintza horietako asko ikusezin mantentzen dira, eta horrek zaildu egiten du komunitatean horiek aitortzea eta baloratzea.

Horretaz gain, bakardadea, nagusi bada ere, ez da modu ireki eta zuzenean adierazten, eta, beraz, funtsezkoa da hura behar bezala ikusaraztea eta identifikatzea. Hala ere, komunitateak ez du gaitasunik zaintza-beharrak eraginkortasunez identifikatzeko. Familia ereduaren eraldaketak gizarte laguntzaren edo laguntzaren eskaeran erreferentzia galtzea ekarri du, eta are gehiago zaildu du zaintzen identifikazioa eta antolaketa.

Bestalde, prebentzio begirada da aldarrikatzen den beste ideietako bat. Esfera publikoaren kasuan, hala nola, hirigintzari begira aurkitu daitezkeen oztopoek, ikuspegi prebentibo eta zaintzaileago bat izan behar dutela azpimarratzen da. Izan ere, uste baino arazo handiagoa suposatzen dute Urnietako udalerrian aurkitu daitezkeen hirigintza baldintzapenek.

Baina begirada hau ez da alor instituzionalean bakarrik garatu behar, baita komunitatean ere. Izan ere, gizarte bezala, orokorrean asko kostatzen zaigu laguntza behar dugula onartzea, eta premia larrian gaudenean soilik daukagu laguntza eskatzeko joera. Hartara, egoera hauek eman aurretik garatu daitezkeen zaintza eta ikuspegi prebentiboek, gaitzak sendatu beharrean, osasuna zaintzen lagunduko lukete. Horrenbestez, ezinbestekoa ikusten da zaintzaren hezkuntzan indarrak jarri eta komunitatearen sentsibilizazio eta kontzientziazioa sustatuz, esku-hartze erreaktiboak garatzea.

Azkenik, funtsezkoa da zaintzaren hezkuntzan lan egitea arlo guztietan: komunitatean, familian, hezkuntzan eta erakundeetan. Heriotza, bakardadea, osasun mentala eta dolua bezalako gai tabuak lantzea funtsezkoa dela azpimarratzen da, zaintzen ulermen zabalagoa eta sakonagoa sustatzeko. Era berean, zaintzaileak zaintzearen garrantzia azpimarratu behar da, zaintzak eskaintzeko ardura duten sistemek askotan ez baitute eraginkortasunez funtzionatzeko behar den zaintza jasotzen. Guztiok, gure bizitzan zehar, arreta jaso edo jarriko dugula onartzeak, komunitatean kultura ulerkorragoa eta solidarioagoa sortzen lagun dezake.

### *d) Familiaren esfera*

Urnietako zaintzaileek zaintzaren esperientziaren ikuspegi aberatsa eta konplexua eskaintzen dute. Gehienak bikotekide edo senitartekoren baten zaintzaile nagusiak dira (edo izan dira), eta hainbat gaixotasuni aurre egin behar izaten diete: iktusa, alzheimerra, eskizofrenia, afasia eta bestelako osasun baldintza larriak. Baina gaixotasun hauetaz gain, arazo emozionalak ere izan dira bizitu behar izan dituztenak, hala nola, depresioa, familiak errealitatea ikusteko gaitasun eza, zaintza ardurak eramatean akidura, emakumezkoa izateagatik sentitu duten zaintzekiko presioa, beraien bizitza proiektua aurrera eramateko baldintza soziala edo eta,  norbanakoa lehenesterakoan sentitzen duten kulpa, besteak beste.

Zaintzaile nagusi bezala, beren ibilbidea eskuragarri dauden laguntzak ezagutu gabe hasten da askotan, eta kasu gehienetan estresa eta karga emozionalaren ondorioz, egoerak gainezka egiten duenean jotzen dute Gizarte Zerbitzuetako atea.

Gainera, askok aurre egin behar diote zaintzaile rolaren mendekoak izateari, hau da, zaindariak diren heinean beraien burua ere zaindu egin behar dute, baina askotan, eskaintzen dituzten zaintzek ez dute norberaren burua zaintzeko aukerarik ematen eta laguntzarik gabe, zaindariak, bere bizitza proiektua itzalean uzten amaitu behar du beharrak dituen senitarteko edo pertsona zaindu ahal izateko. Horrenbestez, menpeko bilakatzen dira zaindariak ere, eta askotan, beraiek jarraitu ezin izan ez gero eman daitezkeen kasuen beldur dira, inork ez lukeelako lekukoa hartuko.

Familiaren babes falta behin eta berriz agertzen den gaia da, eta zaintzaileak kanpoko zerbitzuen eta seme-alaben laguntza emozionalaren mende daude ia erabat. Bakartze hori larritu egiten da zamaren sentimendu mingarri eta iritzi publikoaren presioarekin, barne borroka bat islatuz benetan laguntza behar duenaren inguruan: zaintzailea edo zaintza. Zailtasun horiek izan arren, gizarte-zerbitzuetatik eta laguntza-taldetik jasotako laguntzagatik balorazio argia dago; izan ere, zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen du eta ulertuak eta zainduak sentitzeko espazio bat ematen die.

### *e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera*

Urnietan laguntza behar duten pertsonen zaintzen pertzepzioa arreta fisiko zein emozionalaren beharrean oinarritzen da. Zaintzak beharrezkotzat jotzen dira, ez bakarrik autonomia eta mugikortasun gabeziako egoeretan, baita eremu emozional eta lagunartekoan ere. Autonomia galtzeko beldur handia dago, eta horrek prebentzioaren garrantzia azpimarratzen du,

etorkizunean zaintza egokia bermatzeko. Prebentzio-jarduerak, hala nola, memoria, irakurketa eta kirol tailerrak, oso balioetsiak dira.

Komunitateak funtsezko rola jokatzen du pertzepzio horretan, herritarrek herriko kaleetan ematen duten laguntzak zaintza eta babes sentsazioa sortzen baitu. Hala ere, komunitatean indibidualtasunerako joera gero eta handiagoa ikusten da, eta horrek kontrastea egiten du elkarrekiko laguntzaren beharrarekin. Bizilagunekiko harremanak, laguntasuna eta laguntza soziala funtsezkoak dira zainduta sentitzeko, baita gertuko pertsonek emandako zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa ere.

Familiari dagokionez, zaila da zaintzei heltzea. Askotan badago benetako beharrei buruz hitz egiteko erreparoa, bereziki autonomia galera nabarmenik ez dagoenean. Bakardadea eta babes emozionala bezalako beharrei arreta ez jartzea ekar dezake horrek. Gainera, infantilizazioa eta sinesgarritasun falta nabari da zaintza beharra duten pertsonekiko, entzunak eta serioski hartuak izan nahi duten arren, gutxietsiak sentitzen baitira egoera askotan. Baina, beraien burua errespetatzeko mugak ezartzerako garaian, errua emozio arrunta bilakatzen da norberaren ongizatea besteen zaintzaren gainetik lehenesten dutenean. Zaintza emozionala, nahiz eta ez hain agerikoa izan, era berean garrantzitsua da, eta identifikatu eta zaindu egin behar da. Gainera, hirigintza baldintzek, hala nola irisgarritasun faltak, eragin handia dute pertsona horien ongizatean eta mugikortasunean.

### 5.2.2. Zaintza politikak

#### *a) Esfera publikoa*

Urnietako zaintza-politikak, udal-teknikarien ikuspegitik, zeharkakotasuna eta sailen arteko lankidetzaren beharra nabarmentzen dituen ikuspegiarekin garatzen dira. Zaintzak ez dira soilik osasun edo gizarte zerbitzuen sailaren ardura; lehentasuna izan behar dute udal sail guztietan. Zeharkako ikuspegi horrek aukera ematen du komunitatearen beharrei modu integralean heltzeko, eta arreta osoa eta koordinatua eskaintzeko sail guztiek lankidetzan jardungo dutela bermatzen du.

Hala ere, zaintza-zerbitzuen kudeaketan eta horniduran gardentasun handiagoa izateko behar kritiko bat identifikatu da. Gardentasuna funtsezkoa da herritarren konfiantza eraikitzeko eta mantentzeko, herritarren parte-hartze aktiboagoa eta kontu-emate handiagoa erraztuz. Udal-teknikariek nabarmendu dute, halaber, garrantzitsua dela sailen arteko komunikazioa eta

koordinazioa hobetzea, zerbitzuak eraginkortasun eta efizientzia handiagoz emateko, bikoiztasunak saihestuz eta pertsonarengan oinarritutako arreta bermatuz.

Bestalde, burokraziaren pisua beste erronka garrantzitsu bat dela identifikatu da, udal zerbitzuak herritarrengandik hurbil egotea baldintzatzen duena. Denboran zehar, gehiegizko burokraziak Udalaren eta herritarren arteko urruntzea sortu du, prozedurak zailduz eta zerbitzuak pertsonen berehalako beharretatik aldenduz. Horri erantzunez, udal teknikariek aitortu dute garrantzitsua dela prozedurak sinplifikatzea eta herritarren itxaropen berrietara egokitzea, Udalaren eta komunitatearen arteko harremana hobetzeko.

Gainera, herritarren konfiantza berreskuratzeko beharra azpimarratu dute. Horretarako, funtsezkoa da administrazioa herritarren behar eta kezketarako irisgarriagoa eta sendoagoa izatea. Udala herritarrengana hurbildu eta komunitatearen ongizatearekiko benetako konpromezua erakusten duten ekimenetan inbertitzea ezinbestekoa da konfiantza hori berreraikitzeko. Halaber, komunitatean, norberaren zaintza elkartasuna eta babesa sustatzen duten ikuspegi kolektiboekin orekatzearen garrantzia aitortzen da.

Azkenik, herritarren kexei eta protestei erantzuteko hobetu beharreko arloak identifikatzen dira. Kezka horiei erantzun egokirik ez emateak Udalarekiko deskonexio eta mesfidantza sentsazioa eragiten du. Kexen arreta eta erantzuna hobetzea funtsezkoa da komunitatearekin harreman hurbilagoa eta positiboagoa sustatzeko.

### *b) Esfera pribatua*

Urnietako zaintza politiken koordinazioari eta inplementazioari dagokionez, nolabaiteko koordinazio soziosanitarioa sumatzen da, profesional batzuen ekimen indibidualak bultzatuta; esate baterako, Gizarte Zerbitzuekin erregularki kolaboratzen duen anbulatorioko erizain batek. Hala ere, koordinazio hori ez dago sistematizatuta, ezta egituratuta ere, eta horrek eraginkortasuna eta irismena mugatzen ditu. Loratu, ELZ eta Eguneko Zentroa bezalako zerbitzuek koordinazio-maila desberdinak dituzte Gizarte Zerbitzuekin, aldian behin bilerak eginez kasu espezifikoak eztabaidatzeko eta zerbitzuak gorabeheren arabera egokitzeko.

Ahalegin horiek gorabehera, koordinazio formaleko egiturarik eta zerbitzuen arteko arreta-plan partekaturik ez egoteak integrazio eraginkorra zailtzen du. Pertsona ardatz izango duen plan bakar baten beharra azpimarratzen da, zerbitzu ezberdinek zatituko ez dutena, zaintza egoera ezberdinei erantzun integratuago eta jarraituago bat emateko. Gainera, garraio egokituko zerbitzuekin eta beste zerbitzu osagarri batzuekin koordinaziorik ez dagoenez, zaintza emateko sistematizazio eta kohesio handiagoa behar da.

Egungo egitura burokratikoak zerbitzuen eta biztanleriaren arteko urruntzea ere eragiten du, zaintza hurbil eta pertsonalizatua emateko erronka gehigarriak sortuz. Zaintza zerbitzuen eraginkortasuna eta pertzepzioa hobetzeko, funtsezkoa da prozedurak sinplifikatzea eta herritarrekiko hurbiltasun eta irisgarritasun handiagoa ziurtatzea. Ikuspegi horri esker, banakako beharrei hobeto erantzuteaz gain, komunitatearekin konfiantzazko eta lankidetzako harremana sustatuko da, arreta pertsonen ongizate integralean jarriz beti.

### *c) Esfera komunitarioa*

Urnietako komunitatearen ikuspegitik, informazio falta eta informazio hori eskuratzeko zailtasunak daude. Informazio faltsua zabaltzeak, zurrumurruek eta hedabideen eragin negatiboak zuzenean zein zeharka eragiten diote segurtasunaren eta zaintzaren pertzepzioari. Halaber, komunitatearen iritziz ere, prozesu burokratiko konplikatuegiek herritarren eta administrazio publikoaren arteko distantzia handitzen dute, urruntze eta mesfidantza sentsazioa sortuz.

Ezinbestekoa da zaintza-politikak pertsonengan zentratzea, zerbitzuak haien behar erreal eta espezifikoetara egokitzen direla ziurtatuz. Komunitateak gizarte zerbitzuen elkarlana baloratzen du, nahiz eta onartzen duen zerbitzu publikoak mugatuak direla eta beharrezkoa dela herritarrak muga horien errealitateaz sentsibilizatzea. Herritarren beharrekiko sentsibilizazio falta nabarmena dago administrazio publikoaren aldetik, eta horrek zaildu egiten du zaintza egoki eta eraginkorrak ematea.

Tokiko saltokiek administrazio publikoaren eta komunitatearen arteko bitartekari-lana egin dute, gizarte-sarean eta zaintza informalen horniduran duten garrantzia nabarmenduz. Hala ere, bitartekaritza hori ez da beti behar bezala aitortzen eta babesten. Herritarrek administrazio publikoa urrun eta arrotz sentitzen dute, eta funtsezkoa da pertzepzio hori eraldatzeko lan egitea eta aliantza eta lankidetza harreman bat eraikitzea.

Zaintza politikak hobetzeko, beharrezkoa da administrazio publikoen, erakundeen eta komunitatearen arteko lankidetza eraginkorra. Administrazioak kontrola askatzen ikasi behar du, eta konfiantza handiagoa izan behar du komunitatean; komunitateak, berriz, inplikazio eta parte-hartze aktibo handiagoa erakutsi behar du. Bi norabideko lankidetza hori nahitaezkoa da zaintza-sistema integratuagoa, gardenagoa eta pertsonetan zentratuagoa garatzeko.

### d) *Familia zaintzaileen esfera*

Zaintzaileen arabera, Urnietako zaintza-politikek laguntza-baliabide publiko zein pribatuak barne hartzen dituzte, baita komunitateko eta familiako ekimenak ere. Baina, zerbitzu publikoetara iristeko dauden prozedura burokratikoek, pertsona erdigunetik urruntzen dutela azpimarratzen da, eta zaintzak eskaini arren, zaintza hauek behar dituztenengana iristeko oztopo bilakatu direla adierazten da. Halaber, zaintzaileek baliabide gehigarrien garrantzia azpimarratzen dute, aisialdia eta bidaiak, esaterako, funtsezkoak baitira haien ongizate emozional eta mentalerako. Komunitatetik, zaintza-beharrekiko, aisialdi-eskaintzarekiko, lagunei laguntzearekiko eta sexu-premien onarpenarekiko sentsibilizazio-ekimenak nabarmentzen dira, laguntza osoko ingurunea izaten laguntzen baitute.

Familiak funtsezko rola jokatzen du, ulermena, onarpena, entzunak izatea, babesa eta maitasuna eskainiz, eta horiek funtsezkoak dira zaintzaileen ongizaterako. Politika horiei buruzko hausnarketek erakusten dute tentsioa dagoela norberaren bizi-proiektu bat garatzeko askatasunaren beharraren eta zaintzarekiko mendekotasunaren artean, baita kexatzeko edo laguntza eskatzeko hautemandako zilegitasun falta ere. Testuinguru horrek iradokitzen du, nahiz eta baliabide asko dauden eskuragarri, zaintzaileek sarri sentitzen dutela beren behar pertsonal eta emozionalak ez direla erabat aitortuak edo artatuak.

### e) *Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera*

Urnietako zaintza politikak, osasun eta gizarte arloan bereziki, oso estimatuak dira, haien laguntza eta aitorpenagatik. Hala ere, beste esfera batzuetan hautematen den bezala, zerbitzu horiek eskuratzeko beharrezkoak diren prozesu burokratikoak gehiegizkotzat jotzen dira, eta fokua kentzen diete pertsonen behar indibidualei. Laguntza ekonomikoak ez dira iristen behar dituzten pertsona guztiengana, eta oinarrizko behar batzuk ase gabe uzten dituzte. Gainera, distantzia sumatzen da zerbitzu instituzionalen eta herritarren artean, eta horrek hurbiltasun eta irisgarritasun handiagoko eskaria sortzen du.

Instalazio publikoetan eskura dauden baliabideek ez dute nahitaez garestiak izan behar, baina pertsonei behar bezalako laguntza emango zaiela bermatu behar dute. Behar txiki baina garrantzitsuak, hala nola neguan berogailua jartzea, askotan ez dira kontuan hartzen, eta pertsonen zaintzan eragin handia izaten dute. Erronka horiek gorabehera, laguntza behar duten pertsonak oso zainduta sentitzen dira hainbat jarduera komunitarioren bidez, hala nola kantu-entseguak, dantzak, pintura-tailerrak, Loratu zaintza-tailerra, memoria-tailerrak eta informatika-ikastaroak.

### 5.2.3. Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzunkidetasuna

*a) Esfera publikoa*

Urnietako eremu publikoan, zaintzen horniketan sentsibilizazioak eta erantzunkidetasunak duten garrantzia nabarmentzen da. Udal teknikarien ustez, herritarrentzako arreta zaintza modu bat bezala ulertu eta baloratzeko premiazko beharra dago. Pertzepzio horrek bi norabidetakoa izan behar du, herritarrak, artatuak ez ezik, Udalak zainduak ere senti daitezen. Ikuspegi horrek administrazioaren eta komunitatearen arteko harreman hurbilagoa eta enpatikoagoa lortzen lagunduko luke.

Era berean, Udalaren eta komunitatearen arteko lankidetza eta aliantzaren beharra azpimarratzen da. Zaintzen ikuspegi partekatua sustatzea funtsezkoa da lankidetza eta erantzunkidetasuna sustatzeko. Udaleko teknikariek aitortu dute lankidetza horrek zaintza zerbitzuak indartzeaz gain, komunitate zentzua eta elkarrekiko babesa ere sortuko dituela. Hori lortzeko, udal-langileak eta herritarrak sentsibilizatu behar dira zaintzen garrantziaz eta horiek hornitzeko lankidetzaz.

Zaintzei buruzko kontzientzia integralaren falta antzeman dute Udalaren barruan, baita komunitatean ere, oro har. Kontzientzia falta hori oztopo nabarmena da zaintzaren eta erantzukidetasunaren kultura garatzeko. Beharrezkoa da sentsibilizazio-programak ezartzea, eragile guztiak hezteko zaintzen garrantziari buruz eta herritarren arreta eta ongizatea hobetzeko lagundu dezaketen moduei buruz. Laburbilduz, zaintzetan sentsibilizazioak eta erantzukidetasunak baterako ahalegina eskatzen dute Urnietako zaintzen pertzepzioa eta praktika eraldatzeko, Udalaren eta komunitatearen arteko enpatia, lankidetza eta elkarrekiko laguntza handiagoa sustatuz.

*b) Esfera pribatua*

Urnietako eremu pribatuan, zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzukidetasuna ezinbestekoak dira erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeko. Elkar zaintzeko eta laguntzeko kultura bat sortzearen garrantzia aitortzen da, bai zaintzak jasotzen dituztenentzat, bai eskaintzen dituztenentzat. Zaintzaileentzako Laguntza Taldea (zaindari taldea) eta antzeko programak zaintzaileen arteko kohesioa eta laguntza sustatzen duten ekimenen adibide dira, eta esperientziak eta baliabideak partekatzeko erreferentziazko figurak eta topaguneak behar direla nabarmentzen dute.

Erantzukidetasuna islatzen da Zaintzaileen Laguntza Taldea (Zaindari taldea) bezalako zerbitzuen integrazioan, eta horrek, zaintzaileen arteko kohesioa eta elkarrekiko laguntza sustatzen du. Talde horrek nabarmendu du oso garrantzitsua dela erreferentziazko figura bat izatea, eta zaintzaileek esperientziak partekatzeko eta laguntza jasotzeko gune bat izatea. Garraio egokituko zerbitzuek ere, Bidez-Bidek eta Aterak kasu, erantzun-kidetasun aktiboa erakusten dute, erabiltzaileekin lotura estua dutelako, eta horrek haien beharrak hobeto ezagutzeko eta modu eraginkorragoan erantzuteko aukera ematen die.

Hala ere, herritarren zaintzen garrantziari buruz sentsibilizazioa handitzea beharrezkoa dela onartzen da eta ardura duten pertsonen zaintzan erantzukidetasuna sustatzea. Komunitatearen parte-hartzea eta zaintza-zerbitzuen eta komunitatearen arteko lotura hobetzea funtsezkoa da, gaur egun zerbitzu askok ez baitute halako integraziorik. Erantzun -kidetasunak esan nahi du eragile guztiek, familiakoek, profesionalek eta komunitateak oro har, elkarrekin lan egin behar dutela kalitatezko eta pertsonarengan zentratutako zaintza eskaintzeko.

Era berean, Bidez-Bide eta Atera garraio egokituaren zerbitzuek erabiltzaileekin duten harreman estuan ere islatzen da erantzukidetasuna. Eguneroko kontaktu pertsonalizatu horrek pertsonen beharrak eta testuinguruak sakon ezagutzea errazten du, arreta egokituagoa eta eraginkorragoa ahalbidetuz. Gainera, koordinatzaileak eta profesionalak etxez etxeko laguntza-zerbitzuak etengabe gainbegiratzen eta doitzen inplikatzeak bermatzen du zaintzak garrantzitsuak eta egokiak izatea egoera jakin bakoitzerako.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere erantzukizun partekatua izateko oztopoak daudela ikusten da, hala nola, zerbitzu eta profesionalen arteko koordinazio eta komunikazio sistema egituratu baten falta. Esparru horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da lankidetza eta informazio-trukea erraztuko duten metodologiak eta egiturak garatzea, ikuspegi eta ezagutza guztiak eskainitako arretan integratuko direla ziurtatuz. Komunitatea zaintzen eta erantzukidetasunaren garrantziaz sentsibilizatzea nahitaezkoa da zaintza-ekosistema kohesionatuago eta eraginkorrago bat eraikitzeko.

### *c) Esfera komunitarioa*

Komunitatearen ikuspegitik, funtsezkoa da zaintzekiko sentsibilizazioa eta prebentzio-jarrera sustatzea. Gaur egun, komunitatearen mobilizazioa larrialdi-egoeretan gertatzen da batez ere, eta horrek nabarmentzen du jarrera prebentiboagoa hartu behar dela eta zaintza-beharrekiko sentsibilitate komunitarioa areagotu behar dela. Komunitatearen barruan antolaketa eta

inplikazio falta nabarmena dago, eta horrek komunitate sentimendua eta elkarteen arteko lankidetza galtzea ekarri du.

Landa eremuan, zaintza sareak oraindik mantentzen dira, eta topaguneak egotea zaintza eskaintzeko baliabide baliotsutzat jotzen da. Hala ere, eremu hiritarragoetan, elkarteen arteko lotura ahuldu egin da, eta erakunde bakoitzak modu isolatuan jarduten du. Saltokiak, eliza eta tokiko beste instalazio batzuk gune zaintzaile gisa identifikatzen dira, eta zeregin erabakigarria izan dezakete zaintza komunitarioen horniduran, nahiz eta haien ekarpena ez den beti behar bezala aitortzen eta babesten.

Administrazioak ezarritako murrizketek eta komunitatearen inplikazio faltak herritarren erantzukidetasuna mugatu dute. Garrantzitsua da herritarrek zaintza-premiak dituzten pertsonei gehiago entzuten ikastea, eta horrek, sentsibilizazioa areagotzeaz gain, behar horiek behar bezala asetzeko gaitasuna ere handituko du. Tokiko saltokiek, bereziki, administrazioaren eta komunitatearen arteko bitartekari gisa jardun dute, eta modu eraginkorragoan aitortu eta babestu beharko litzatekeen zaintzaile esanguratsua izan dira.

### *d) Familia zaintzaileen esfera*

Sentsibilizazioari eta erantzukidetasunari dagokionez, Urnietako zaintzaileek asko estimatzen dute gizatasunez eta enpatiaz tratatzen direnean. Esperientzia positiboak adierazi dituzte gizarte langileekin eta erizainekin, eta informazio argia eta babes emozionala eman diete behar izan dutenean. Interakzio horiek funtsezkoak izan dira zainduak eta ulertuak sentitzeko. Hala ere, burokraziari eta administrazioaren erritmo geldoei ere aurre egin behar izaten diete, eta horrek askotan zama gehigarria eransten dio jada estresagarria den euren rolari.

Administrazioaren eta komunitatearen arteko lankidetzaren eta aliantzaren garrantzia aitortzen da. Zaintzaileen iritziz, zaintza-beharrekiko sentsibilizazio komunitario handiagoa behar da, eta arazoei aurre egiteko prebentzio-jarrera izan behar da, krisi bihurtu baino lehen. Antolaketa eta inplikazio komunitario falta oztopo ikusten dute, eta komunitate sentimendua eta elkarteen eta laguntza sareen arteko interkonexioa indartzeko beharra nabarmentzen dute.

### *e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera*

Urnietan laguntza behar duten pertsonen zaintzan sentsibilizazioa eta erantzukidetasuna hainbat alderditan agertzen dira. COVID-19aren pandemian zehar, erosketak etxera ekartzeko laguntza eskaintzari esker, oso zainduta sentitu ziren pertsona horiek. Komunitateak, oro har, zaintzak behar dituzten pertsonekiko duen interesa ere faktore positiboa eta oso lagungarria da.

Hala ere, tokiko saltoki handien faltak harreman komunitarioak mugatzen ditu, eta sentsibilitate eta babes komunitario handiagoa sustatzeko beharra identifikatzen da, sare soziala indartzeko eta babesa behar duten pertsonak babestuak daudela ziurtatzeko.

Komunitateak irekiago eta konprometituago egon behar du, guztiok besteen ongizatearen arduradun sentituko diren ingurua sortuz. Laguntza behar duten pertsonen eta haien senideen arteko antolakuntza eta koordinazio falta erronka esanguratsua da. Askotan, zaintza beharrak dituzten pertsonek zailtasunak izaten dituzte beren beharrak adierazteko; senideek, berriz, gaia jorratzea saihesten dute, errealitateari aurre egiteko beldurrez. Oztopo horrek eragotzi egiten du zaintzan erantzun-kidetasun eraginkorra izatea. Zaintza-premiak dituzten pertsonei gehiago entzuten ikasi behar du komunitateak, haien erronkak eta kezkak ulertuz, haien beharrekiko sentikortasuna handitzeko eta hobeto asetzeko.

Azpimarratzekoa da tokiko saltokiek, elizak eta beste espazio komunitario batzuek duten zeregina aitortzea; izan ere, handiak ez izan arren, zeregin garrantzitsua dute laguntzak behar dituzten pertsonen eguneroko bizitzan. Leku horiek katalizatzaileak izan daitezke, zaintza sare eraginkorragoa eta gertukoagoa eraikitzeko modu bat. Komunitate osoaren inplikazioaren bidez, erakundeetatik hasi eta herritarretaraino, ezinbestekoa da pertsona guztiak baloratuak eta babestuak sentituko diren ingurune bat sortzeko.

Topaketarako eta elkarrizketarako espazioak sortzeak komunitate kontzienteago eta arduratsuago bat eraikitzen lagun dezake, non zaintza lehentasun partekatua izango den.

### 5.2.4. Urnietako Zaintza Ekosistema

#### *a) Esfera publikoa*

Esparru publikotik, Urnietan Zaintza Ekosistema bat ezartzeko beharra aitortzen da, egungo metodologiak birplanteatuko dituena eta sistema integratuago eta koordinatuago bat sustatuko duena. Ikuspegi berri horrek zeharkakotasun handiagoa eta sailen arteko lankidetza izan behar ditu oinarri, eta zaintzak modu kohesionatuan eta eraginkorrean emanez udal-sail guztiek laguntzen dutela ziurtatu behar du.

Zaintza Ekosistema hori sortzeko, koordinazio-egitura formal bat ere behar da, inplikatutako zerbitzuen eta eragileen arteko komunikazioa eta lankidetza errazteko. Horren aurrean, gardentasun falta eta gehiegizko burokrazia udal zerbitzuen gertutasuna eta eraginkortasuna mugatzen duten oztopo esanguratsu gisa identifikatu dituzte. Prozedurak sinplifikatzea eta

gardentasun handiagoa sustatzea ezinbesteko urratsak izango dira zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko eta komunitatearen konfiantza berreskuratzeko.

Garrantzitsua da zaintza-sistema berri honek herritarrak erdigunean jartzea, zerbitzuak herritarren behar eta itxaropen aldakorretara egokituz. Horrek banakako arreta pertsonalizatuagoa ez ezik, komunitatean elkartasuna eta elkarrekiko laguntza sustatzen dituen ikuspegi kolektiboa ere eskatzen du. Metodologia berritzaileen inplementazioak pertsonen behar fisikoak eta lehentasunak eta nahiak kontuan hartu behar ditu, arreta integrala eta pertsonarengan zentratua bermatuz.

Gainera, garrantzitsua da herritarren kexei eta kezkei erantzuteko mekanismo eraginkorrak garatzea, haien ahotsak entzungo direla eta haien beharrak behar bezala beteko direla ziurtatuz. Beti ere, baliabideen mugak eta baldintzak herriak ere zeintzuk diren ulertuz. Aldi berean, zaintzen eta erantzukidetasunaren garrantziaren inguruan eragile guztiak sentsibilizatzeko lan egin behar da, elkar zaintzeko eta elkarlanean aritzeko kultura sustatuz.

Laburbilduz, esparru publikotik Urnietan Zaintza Ekosistema bat sortzeko, egungo metodologiak sakon eraldatu behar direla aitortzen du esfera publikoak, zeharkakotasunean, koordinazioan, gardentasunean eta herritarren zentraltasunean oinarrituta. Ikuspegi horri esker, arreta eskuragarriagoa, eraginkorragoa eta pertsonengan zentratuagoa izango da, eta ongizate integrala eta jasangarria sustatuko da komunitate osoarentzat.

### *b) Esfera pribatua*

Urnietako eremu pribatutik, zaintza sistemaren egungo metodologiak birplanteatuko dituen Zaintza Ekosistema bat garatzeko beharra aitortzen da. Ikuspegi berri hori koordinazio handiagoan eta arreta-plan bakar eta partekatu batean oinarritu behar da, pertsona bakoitzaren egoeraren ikuspegi holistikoa emango duena. Koordinaziorako egitura formalik eta ikuspegi partekaturik ez egoteak mugatu egiten du gaur egun eskaintzen diren zaintzen eraginkortasuna eta integrazioa.

Ezinbestekoa da pertsonen beharrak, lehentasunak eta nahiak kontuan hartzea, haien bizi-proiektu osoa kontuan hartzen dela ziurtatuz, eta ez une bateko beharrak soilik. Horrek, komunikazioaren sistematizazioa eta zaintzan inplikatutako zerbitzuen eta eragileen arteko koordinazioa sustatu behar dela esan nagi du. Zerbitzu ezberdinetako profesionalen artean ikuspegiak eta ezagutzak partekatzeak pertsona bakoitzaren egoeraren ulermena aberastu eta arretaren kalitatea hobetu dezake.

Gainera, metodologia berrien inplementazioa arreta plan bakar bat sortzera bideratu behar da, benetan pertsona ardatz izango duena, zerbitzuen zatiketa saihestuz. Ikuspegi horri esker, komunitateko zaintza-egoera guztiei erantzun integratuagoa eta jarraituagoa emango zaie, eta ongizate integrala eta iraunkorra sustatuko da laguntza behar duten gizabanako guztientzat.

### *c) Esfera komunitarioa*

Zaintzen Ekosistema bat sortuz zaintza sistema birpentsatu eta eraldatu beharra dagoela onartu du Urnietako komunitateak. Ikuspegi horrek bizikidetza sustatu, konexio-espazioak sortu eta herritarrei modu aktiboan entzutea bultzatu behar du. Udal-zerbitzuetarako ideia berritzaileak inplementatzeak, hala nola, laguntza behar duten pertsonentzako zuzeneko telefono bat, jantoki sozialak eta garraio komunitarioa, administrazio publikoaren eta komunitatearen arteko arrakala ixten lagun dezake.

Elkarlaneko bitartekariak izateak elkarrekintza erraztu eta administrazioaren eta herritarren arteko distantzia murriztu lezake. Ordutegi malgutasuna eta lankidetzarako beste ideia batzuk ezinbestekoak dira komunitatearen eta erakunde publikoen arteko aliantza sendotzeko. Hala ere, komunitatearen barruan ekimenik eza antzematen da, eta horrek, komunitate-dinamizazioari begira, administrazioak zeregin aktiboa izan behar duela iradokitzen du.

Komunitate-antolaketa eta belaunaldien arteko harremanak gizarte-ehuna indartzeko eta zaintzen hornidura hobetzeko funtsezko estrategia gisa proposatzen dira. Urnietako komunitatea prest dago aldaketa hori gidatzeko, eta eraldaketa prozesu horretan ekimena hartzeak duen garrantzia onartu dute.

> *"Ez da Urnietako arazoa bakarrik… baina norbaitek zerbaitekin hasi behar du, eta Urnietan izan behar bada, hobe… Zergatik ez gara gu hasten? Orain eta hemendik".*

Jarduteko jarrera horrek Zaintzen Ekosistema eraginkorragoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa sortzeko konpromiso komunitarioa islatzen du.

### *d) Familia zaintzaileen esfera*

Zaintzetarako Ekosistema eraginkorra sortzeko Urnietan, zaintzaileek bizikidetza sustatzeko, konexio-guneak sortzeko eta herritarrei aktiboki entzuteko beharra azpimarratzen dute. Besteak beste, laguntza behar duten pertsonentzako telefono zuzena, jantoki sozialak eta herri barruko garraio zerbitzuak proposatu dituzte. Lankidetza-bitartekarien figurak administrazio publikoaren eta komunitatearen arteko distantzia murriztu lezake, komunikazio eta lankidetza hobea erraztuz.

Zaintzaileek, halaber, parte-hartzea eta belaunaldien arteko antolaketa sustatzeko komunitate-dinamizatzaileak ezartzea proposatzen dute. Aldaketa horiekin tokian-toki hastearen garrantzia nabarmendu dute, eta zaintza arazoak Urnietakoak bakarrik ez diren arren, herria lider izan litekeela onartzen da. Komunitateak rol aktiboagoa eta konprometituagoa hartu behar du, eta administrazio publikoak komunitatearen baliabide eta gaitasunetan konfiantza handiagoa izaten ikasi behar du, zaintzan benetako erantzukidetasuna sustatuz.

*e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera*

Urnietan Zaintzen Ekosistema eraginkorra garatzeko, zaintzak behar dituzten pertsonen iritziz, funtsezkoa da elkarbizitza sustatzea eta interakzioa eta elkarrekiko laguntza erraztuko duten konexio-guneak sortzea. Zerbitzu instituzionalen hurbiltasuna eta irisgarritasuna funtsezkoak dira zaintza-beharrei behar bezala erantzungo zaiela bermatzeko. Gainera, garrantzitsua da lankidetza-bitartekariak izatea, administrazio publikoaren eta komunitatearen arteko distantzia murrizten laguntzeko. Komunitateak aktiboki inplikatu behar du zaintza-ingurune baten sorreran, belaunaldien artean antolatuz eta erakunde publikoekin lankidetza estuan jardunez.

## 5.3. ONDORIO NAGUSIAK

### 5.3.1. Esfera publikoa

Eremu publikotik, zeharkako zaintzen politika baten garrantzia nabarmentzen da, ez dena osasun sailetara edo gizarte zerbitzuetara mugatuko, baizik eta udaleko sail guztiak inplikatuko dituena. Gardentasuna eta sailen arteko komunikazio hobea ezinbestekoak dira burokrazia murrizteko eta zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko. Herritarren konfiantza berreskuratzeko, politikak pertsonengan zentratu behar dira, eta kexa eta protestei hobeto erantzun behar zaie. Eta azkenik, administrazioak komunitatearekin lankidetzan lan egin behar du, erantzukidetasuna sustatuz eta herritarrak modu integralean zainduta eta zainduta sentituko direla ziurtatuz.

### 5.3.2. Esfera pribatua

Urnietako eremu pribatuak zaintzen ulermena eta antolaketa erakusten du, batez ere, autonomia galtzean zentratuta, eta horrek askotan ikusezin bihurtzen ditu beharrezkoak diren beste zaintza mota batzuk. Zaintzen zama neurrigabeki egokitzen zaie emakume eta langile arrazializatuei, eta horrek estereotipoak indartu eta genero berdintasunak oztopatzen ditu. Funtsezkoa da komunitatea heztea bizitzan zehar zaintzek duten garrantziaren inguruan, eta

ikuspegi inklusiboagoa eta holistikoagoa sustatzea, behar fisikoez gain emozionalak eta sozialak ere kontuan hartuko dituena. Gainera, esku-hartze proaktibo handiagoa behar da, eta oztopo arkitektoniko eta sozialak kendu behar dira, mugikortasuna eta zaintzetarako sarbidea errazteko.

### 5.3.3. Esfera komunitarioa

Urnietako komunitateak erronka esanguratsuak ditu zaintzen antolakuntzan eta pertzepzioan, larrialdi-egoeretan bakarrik esku hartzeko eta komunitate zentzua galtzeko joerarekin. Beharrezkoa da prebentzio-jarrera eta zaintza-beharrekiko sentsibilizazio handiagoa sustatzea, lankidetza-sentimendua berreskuratuz eta laguntza-sareak indartuz. Saltokiek eta tokiko beste instalazio batzuek zeregin erabakigarria dute zaintzaile komunitario gisa, eta lagundu eta aintzat hartu behar dira. Zaintza Ekosistema bat sortzeak, konexio eta entzute aktiborako espazioekin, zaintza sistema eralda dezake, administrazioaren eta komunitatearen arteko lankidetza eraginkorra sustatuz eta denek behar den zaintza modu duin eta bidezkoan jasoko dutela ziurtatuz.

### 5.3.4. Familia zaintzaileen esfera

Urnietako zaintzaileen esperientziek laguntza emozional eta praktikoaren funtsezko garrantzia nabarmentzen dute. Zaintzaren zama astuna eta multifazetikoa da, eta zaintzaileen osasun fisikoari zein mentalari eragiten die. Baliabideak eskura dauden arren, argi dago laguntzak eskuragarriago eta pertsonalizatuago egon behar direla. Administrazio publikoaren, komunitatearen eta familiaren arteko lankidetza funtsezkoa da laguntza integrala eta eraginkorra emateko. Zaintzaileek gehiago ezagutu eta ulertu behar dute beren rola, eta laguntza-azpiegitura bat behar dute, besteak zaintzen dituzten bitartean beren ongizateari eusteko. Konexio-espazioak eta komunitate-dinamizatzaileak barne hartzen dituen zaintza-ekosistema bat sortzea urrats garrantzitsua izan daiteke zaintzaileen eta zaintzen dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko.

### 5.3.5. Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Amaitzeko, Urnietan laguntza behar duten pertsonen esferak arreta fisiko zein emozionalak barne hartzen dituen zaintzen ulermen osoa erakusten du. Zaintza-politikek, baliotsuak izan arren, erronka esanguratsuak dituzte aurrez aurre, burokraziari eta irisgarritasun ekonomikoari dagokienez. Sentsibilizazioak eta komunitate-erantzukidetasunak arrakasta-adibideak erakutsi dituzte, bereziki krisi-egoeretan, hala nola COVID-19aren pandemian. Aurrera egiteko,

funtsezkoa da Zaintza Ekosistema bat garatzea, bizikidetza sustatuko duena, pertsonen arteko lotura erraztuko duena eta zerbitzu instituzionalen hurbiltasuna eta irisgarritasuna hobetuko dituena, horrela, guztiontzako zaintza integrala eta eraginkorra ziurtatuz.

# 6. BIBLIOGRAFIA

Arrieta, F. 2022. “Gizarte Zerbitzu Sistematik, Zaintza Sistemara: Nola Egin Saltoa?” *Euskonews* 775. orr.

Berman, S. 1997. “Children’s Social Consciousness and the Development of Social Responsibility.” *New York State University Press. New York*.

Borderías, C; Carrasco, C; Alemany, C. 1994. “Las Mujeres y El Trabajo: Rupturas Conceptuales.” *Barcelona/Madrid: Icaria/FUHEM.*

Cabrera, G. 2006. “La Responsabilidad Social de La Empresa y Las Metas de Desarrollo Del Milenio.” *http://www.educared.edu.pe/directivos/articulo/1044/la-responsabilidad-socialde-la-empresa-y-las-metas-de-desarrollo-delmilenio/*.

Comas D’Argemir, D. 1993. “Sobre El Apoyo y El Cuidado. División Del Trabajo, Género y Parentesco, En Roigé, X. (Coord.) Perspectivas En El Estudio Del Parentesco y La Familia, VI Congreso de Antropología.” *Asociación Canaria de Antropología*: 65–82. or.

Emagin. 2020. *Zaintza Lanen Demokratizaziorantz. Beterri Buruntzealdeako Zaintza Erregimenaren Diagnostikoa Eta Erkintzerako Proposamena.*

Finch, J. 1989. “Family Obligations and Social Change.” *Polity Press*.

Goikoetxea, M. 2020. “La Soledad y El Valor Del Cuidado.” *Ararteko*: 31–49.

López-Cabanas, M.; Chacón, F. 1999. “Intervención Psicosocial y Servicios Sociales: Un Enfoque Participativo. Madrid: Síntesis.” *Madrid: Síntesis*.

Montero, M. 2003. “Teoría y Práctica de La Psicología Comunitaria: La Tensión Entre Comunidad y Sociedad.” *Buenos Aires: Paidós*.

Montero, M. 2004. “Introducción a La Psicología Comunitaria: Desarrollo, Conceptos y Procesos.” *Buenos Aires: Paidós*.

Mori Sanchez, M. D. P. 2009. “Responsabilidad Social: Una Mirada Desde La Psicología Comunitaria.” *Liberabit* 15(2): 163–70.

Pautassi, L; Faur, E; Gherardi, N. 2004. “Legislación Laboral En Seis Países Latinoamericanos. Avances y Omisiones Para Una Mayor Equidad, Serie Mujer y Desarrollo.” *Santiago de Chile, CEPAL* 56.

Pérez Orozco, A. 2019. *Subversión Feminista de La Economía. Aportes Para Un Debate Sobre El Conflicto Capital-Vida.* chrome-extension://efaidnbmnnnibpcajpcglclefindmkaj/https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Subversi%C3%B3n%20feminista%20de%20la%20econom%C3%ADa_Traficantes%20de%20Sue%C3%B1os.pdf (July 11, 2024).

Saitua, A; Sarasola, M. 1993. “La Insumisión. El Cuidado Como Elección.” *Geu Emakumeok* 17: 27–29.

Schwald, M. 2004. “Responsabilidad Social: Fundamentos Para La Competitividad Empresarial y El Desarrollo Sostenible.” *Lima: Universidad del Pacífico*.

Torns, T. 2005. “El Tiempo de Trabajo y Las Relaciones de Género: Las Dificultades de Un Cambio Ineludible. Tiempos, Actividades, Sujetos.” *Una Mirada desde la Perspectiva de Género, Madrid.*

# 7. ERANSKINAK

## a. Eranskina 1: Galdetegi itxia

| Euskaraz | Castellano |
|---|---|
| Bete ondorengo galdetegia erantzun bakoitzaren laukian **X** -a jarriz | Rellene el siguiente cuestionario mediante una **X** en la casilla de la respuesta |
| **1.** Generoa | **1.** Género |
| ☐ Emakumea | ☐ Mujer |
| ☐ Gizonezkoa | ☐ Hombre |
| ☐ Ez-bitarra | ☐ No binario |
| **2.** Gaur egun, Urnietan bizi zara? | **2.** ¿Actualmente resides en Urnieta? |
| ☐ Bai ☐ Ez | ☐ Sí ☐ No |
| **3.** Adin tartea: | **3.** Franja de edad |
| ☐ 16-24 urte | ☐ 16-24 años |
| ☐ 25- 34 urte | ☐ 25- 34 años |
| ☐ 35-44 urte | ☐ 35-44 años |
| ☐ 45-54 urte | ☐ 45-54 años |
| ☐ 55-64 urte | ☐ 55-64 años |
| ☐ 65-74 urte | ☐ 65-74 años |
| ☐ 75-84 urte | ☐ 75-84 años |
| ☐ 85 urte edo gehiago | ☐ 85 años o más |
| ☐ Beste adin bat: | ☐ Otra edad: |
| **4.** Ondorengo eskala honetan, zenbateko garrantzia daukatela uste duzu zaintzek gizartearen ongizatean? (0 = ez dira beharrezkoak, 10 = ezinbestekoak dira) | **4.** En esta escala, ¿cuánta importancia le das a los cuidados para el bienestar de la sociedad? (0 = no es necesario, 10 = son imprescindibles) |
| 0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10 (borobildu puntuazioa) | 0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10 (redondea la puntuación) |
| **5.** Administrazio publikoak zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prestatuta daudela uste duzu? | **5.** ¿Crees que las administraciones públicas están preparadas para abordar los retos relacionados con los cuidados? |
| ☐ Bai ☐ Ez | ☐ Sí ☐ No |
| ☐ Beste bat: | ☐ Otras: |
| **6.** Eta komunitatea? | **6.** ¿Y la comunidad? |
| ☐ Bai ☐ Ez | ☐ Sí ☐ No |
| ☐ Beste bat: | ☐ Otras: |
| **7.** Eta familiak? | **7.** ¿Y las familias? |
| ☐ Bai ☐ Ez | ☐ Sí ☐ No |
| ☐ Beste bat: | ☐ Otras: |

**8.** Zaintza/laguntza behar duen hurbileko pertsonarik baduzu?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

**8.** ¿Tienes una persona cercana que requiera de cuidados o apoyos?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

**9.** Zure kasuan, laguntza/zaintzarik behar duzu?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

**9.** En tu caso, ¿precisas de apoyos o cuidados?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

**10.** Zure ustez, Urnietako Udalak gaur egungo zaintza-beharrei erantzuten die?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

**10.** ¿Crees que el Ayuntamiento de Urnieta da respuesta a las necesidades de cuidados actuales?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

**11.** Zure ustez, udal-politikek erdian jartzen dituzte pertsonen beharrak?

☐ Bai ☐ Ez

**11.** ¿Crees que las políticas municipales ponen las necesidades de las personas en el centro?

☐ Sí ☐ No

12. Zure ustez, premia horiek ikuspegi publiko-komunitariotik landu beharko lirateke?

☐ Bai ☐ Ez

**12.** ¿Crees que estas necesidades se deberían abordar desde una perspectiva público-comunitaria?

☐ Sí ☐ No

**13.** Zure ustez, Urnieta, zaintzak erdigunean jartzen dituen herria da?

☐ Bai ☐ Ez

**13.** ¿Crees que Urnieta es un pueblo que pone los cuidados en el centro?

☐ Sí ☐ No

**14.** Eskala horretan, nola baloratuko zenuke Urnietako herritarrek zaintzen inguruan duten sentsibilizazio maila? (0 = sentsibilizaziorik ez, 10 = oso sentsibilizatuta)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(borobildu puntuazioa)

**14.** En esta escala, ¿cómo puntuarías el grado de sensibilización de la ciudadanía de Urnieta respecto a los cuidados? (0 = nada sensibilizadas/os, 10 = muy sensibilizadas/os)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(redondea la puntuación)

**15.** Ezagutzen duzu Urnietan zaintzak sustatzen dituen auzo-/komunitate-jarduerarik?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

**15.** ¿Conoces actividades vecinales/comunitarias que integren o fomenten los cuidados en Urnieta?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

**16.** Hartu/ hartzen duzu parte jarduera hauetan?

☐ Bai ☐ Ez
Zeinetan?:

**16.** ¿Has formado parte de alguna de ellas?

☐ Sí ☐ No
¿En cuál?:

**17.** Inoiz hartu duzu zure familiakoa edo ingurukoa ez den norbaiten zaintza ardurarik?

☐ Bai ☐ Ez

**17.** ¿Te has involucrado alguna vez en el cuidado de alguien ajeno a tu familia o a tu círculo cercano?

☐ Sí ☐ No

**18.** Urnietan Zaintza-ekosistema dela uste duzu?

☐ Bai ☐ Ez

**18.**Crees que es necesario Ecosistema de Cuidados en Urnieta?

☐ Sí ☐ No

**19.** Gustatuko litzaizuke bertan parte-hartzea?

☐ Bai ☐ Ez

**19.** ¿Te gustaría participar en él?

☐ Sí ☐ No

| | |
|---|---|
| **20.** Hau interesatzen bazaizu eta prozesuari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, utzi zure izena eta kontaktua, eta informazioa gehiago bidaliko dizugu. | **20.** Si esto te interesa y quieres recibir más información del proceso, déjanos tu nombre y contacto y te seguiremos informando. |
| Izena:<br>Telf. / e-maila: | Nombre:<br>Telf. / e-mail: |
| **21.** Horri buruzko iruzkin, iradokizun edo ekarpen bat egin nahi duzu? | **21.** ¿Te gustaría hacer un comentario, sugerencia o aportación al respecto? |
| Idatzi zure erantzuna: | Escribe tu respuesta: |

## b. Eranskina 2: Elkarrizketa erdi egituratua – Talde elkarrizketa

| SARRERA |
|---|
| ❖ **Eskerrak parte hartzeagatik**<br>❖ **Gure aurkezpena**<br>❖ **Proiektuaren gaineko aurkezpena:**<br>❖ **Sesioaren nondik norakoa (denbora, helburuak, ekintzak)** |

**0. SARRERA**

- ❖ **Bakoitzaren aurkezpen txiki bat**

- ❖ **Zaintzaz ari garenean, zertaz ari gara? Definizio txiki bat kokatzeko.**

  Zaintzaz ari garenean, gure eguneroko jarduna posible egiten duten jardueren multzoaz ari gara (zer moduz dauden galdetzea, bazkaltzeko otordu bat prestatzea, etxe bizitza garbi izatea, umeen zaintza, mendekotasun egoeran dagoen adineko baten etxeko laguntza bermatzea…). Hala, zaintza lanak, herritarren ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak direla ulertzen ditugu.

**1. ARIKETA ZAINTZEN KONTZEPZIO EDO IKUSKERA**

- Baduzue inguruan zaintza ardurarik edo zaintzak behar dituen inor?
- Ze zaintza mota behar ditu?
- Nork asetzen ditu behar horiek? / Noren gain erortzen dira zaintza lan hauek?
- Ardura hauek parekideak direla esango genuke gizartean?
- Orain pentsatu zuek pertsona autonomo bezela, zertan behar duzu laguntza.

**2. ARIKETA. ZAINTZA POLITIKAK** (orri txuri baten)

- Orri txurian zerrendatuz: Administrazio publikoari dagokionean, zaintza lanak ze departamendutik eskeintzen dira. (Saiatu minimo 5 departamentu zerrendatzen)
- Bakoitzak bere departamentutik ze erronka identifkatu ditzake zaintzei begira?
- Ze erantzun eman daiteke bakoitzaren aldetik?
- Uste dugu, Urnietako Politikek, zaintzekiko ikuspegia lehenesten dutela?
- Zer beharko litzake zaintzen ikuspegia Urnietako politiketan gehiago txertatzeko?
- Komunitateak zer eman dezake zaintza hauek bermatzeko?
- Erakunde publikoen eta komunitatearen elkarlana beharrezkoa dela uste dugu?

**3. ARIKETA.**

a. Uste dugu zaintza-harremanak ematen direla Urnietako bizilaguneen artean?

b. Herritarren arteko zaintzak sustatzeko ze espazio, mekanismo edo baliabide ditu Urnietak?
c. Uste dugu, Urnietako Herritarren aldetik, inplikazio aktibo bat dagoela ekintza komunitarioak aurrera eramaterako garaian?
    i. Eta ekintza hauek Zaintza ikuspegia barne biltzen dutela uste dugu?
d. Zer egin dezaket nik, komunitatea zaintzeko?

**4. ITXIERA ETA HURRENGO PAUSUAK AZALDU**

e. Nola goaz saio honetatik? Hitz batekin (azalpen txiki bat eman) ze espero nuen eta zerrekin noan. Guk ere bai.
f. Folletoa eman: Galdetegi itxia betetzera gonbidatu eta inguruan zabaltzeko eskatu.
g. Zaintza Ekosistemaren 1. Saioaren gonbidapena

**5. ESKERRAK ETA AGURRA**

## c. Eranskina 3: Bakarkako elkarrizketa

| | |
|---|---|
| **Sarrera** | **Aurkezpena** |
| | **Ekimenaren helburuak** |
| | **Aurkeztu nork bideratzen du ekimena** |

**1. Blokea: Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera (12´)**

**Zaintzaz ari garenean, zertaz ari gara? Definizio txiki bat kokatzeko.**
Zaintzaz ari garenean, gure eguneroko jarduna posible egiten duten jardueren multzoaz ari gara (zer moduz dauden galdetzea, bazkaltzeko otordu bat prestatzea, etxe bizitza garbi izatea, umeen zaintza, mendekotasun egoeran dagoen adineko baten etxeko laguntza bermatzea…). Hala, zaintza lanak, herritarren ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak direla ulertzen ditugu.

1. Zaintzen gaineko ulerkera.
    a. *Zuretzat zer dira zaintzak?*
    b. *Baduzu zaintza ardurarik edo zaintzak behar dituen inor inguruan?*

2. Zaintzek herritarren ongizatean duten eragina
    a. *Zaintzek pertsonen ongizatean eragina dutela uste duzu?*

3. Antolaketa moduak (modu parekidean).
    a. *Zaintzak modu parekidean banatzen direla uste duzu?*
    b. *Noren gain erortzen dira zaintza lanak zure ustez?*

4. Bilakaera demografikoaren (bizi iraupena luzatzea, gero eta adineko pertsona gehiago, jaiotze tasa baxua…) ondorioz sortu daitezkeen erronkak.
    a. *Bilakaera demografikoak zaintzen ikuspegitik erronka bat suposatzen duela uste duzu?*

5. Erakunde publikoek erronka hauei erantzuteko duten gaitasuna.
    a. *Erakunde publikoak prest daude erronka honi erantzuteko?*

6. Komunitateak erronka hauei erantzuteko duen gaitasuna
    a. *Eta komunitatea?*

**2. Blokea: Zaintza Politikak (24´)**

7. Urnietako udalak zaintza beharrei erantzuteko eskaintzen dituen zerbitzuak.
    a. *Urnietako udalak eskaintzen dituen zaintza zerbitzuak (gizarte zerbitzuak) ezagutzen dituzu?*
    b. *Zeintzuk ezautzen ditugu?*

8. Politika hauek herritarren zaintza beharrak asetzeko daukaten gaitasuna.
    a. *Eskaintzen diren zerbitzuak nahikoak direla uste duzu?*
    b. *Asetu gabe geratzen diren beharrak.*

9. Politika hauen lehentasunak:
    a. *Politika edo zerbitzu hauek pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituztela uste duzu?*

10. Zaintza politika berriak garatzeko beharrak:
    a. *Erakunde publikoetatik zein zaintza behargeratzen dira erantzun gabe?*
    b. *Zeintzuk izan beharko lirateke lehentasunak?*
    c. *Eta etorkizunean? Aurrera begira, prebentzio neurrien beharrak.*

11. Zaintza hauek erantzuteko ardura.
    a. *Zaintza beharrei erantzuteko ardura erakunde publikoek soilik dutela ustez duzu? eta komunitateak? eta familiak?*
    b. *Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko elkarlana beharrezkoa dela uste duzu herri zaintzaile bat eraikitzeko?*

12. Zaintza politikek eta zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa).
    a. *Komunitatetik zer egin daiteke zaintza beharrei erantzuteko? zein rol du komunitateak zaintzei dagokionean….?*

**3. Blokea: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzukidetasuna (36´)**

13. Urnietako bizilagunek zaintza beharrekin daukaten sentsibilizazioa.
    a. *Urnietarrak zaintzaren ikuspegia barneratua dutela uste duzu? sentsibilizatuta daude? …..*

14. Herritarren eskutik garatzen diren jarduerak.
    a. *Herritarrek edo herriko eragileek jarduera edo ekimenak antolatzean zaintzen ikuspegia barneratzen dutela uste duzu ? (jaietan zaintza beharrak dituzten pertsonentzako eskaintza egokitu, ahulki erosoak jarri, irisgarritasuna…)*

15. Zaintza-komunitarioa garatzeko espazioak
    a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein espazio edo baliabide ditu Urnietak?*

16. Gure parte-hartze pertsonala
    a. *Familia eremutik haratago zein komunitateko pertsonen zaintza "asumitzeko" prestutasuna dagoela uste duzu?*

17. Zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa) indartzek proposamenak
    a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein proposamen dituzu?*

**4. Blokea: Urnietako Zaintza Ekosistema (48´)**

Hurrengo hilabeteetan Urnietako zaintzen behar anitzei herri bezala erantzun ahal izateko Zaintza ekosistema bat eraikitzen hasiko gara. Erakunde publikoak, entitateak, eragile sozialak eta herritarrak elkarlanean erronka handi honi elkarrekin erantzun ahal izateko harreman sarea sortu nahi dugu. Era horretara, zaintzen antolaketa hobetzeaz gain, asetu gabe dauden zaintza beharrei denon artean erantzuteko espazio elkarbanatu bat sortuz.

18. Zaintza Ekosistema bezalako prozesu baten beharra.
    a. *Urnietako zaintzen antolaketa hobetu eta zaintza beharrei erantzuteko helburua duen zaintza ekosistema bat beharrezkoa dela uste duzu?? zergatik?*

| |
|---|
| *b. Zaintza ekosistema honetan parte-hartzea gustatuko litzaizuke?* |